

REGLAMENTO (UE) 2022/1925 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 14 de septiembre de 2022 sobre mercados disputables y equitativos en el sector digital y por el que se modifican las Directivas (UE) 2019/1937 y (UE) 2020/1828 (Reglamento de Mercados Digitales)

(Texto pertinente a efectos del EEE)

EL PARLAMENTO EUROPEO Y EL CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA,

Visto el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, y en particular su artículo 114,

Vista la propuesta de la Comisión Europea,

Prevía transmisión del proyecto de acto legislativo a los Parlamentos nacionales,

Visto el dictamen del Comité Económico y Social Europeo (1),

Visto el dictamen del Comité de las Regiones (2),

De conformidad con el procedimiento legislativo ordinario (3),

Considerando lo siguiente:

(1) Los servicios digitales en general y las plataformas en línea en particular desempeñan un papel cada vez más importante en la economía, especialmente en el mercado interior, posibilitando que las empresas lleguen a usuarios de toda la Unión, facilitando el comercio transfronterizo y ofreciendo oportunidades de negocio completamente nuevas a un gran número de empresas en la Unión en beneficio de los consumidores de esta.

(EB) 2022/1925 ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2022ko irailaren 14koa, zerbitzu digitalen sektoreko lehia-merkatu ekitatiboei buruzkoa eta (EB) 2019/1937 eta (EB) 2020/1828 zuzentarauak aldatzen dituen (Merkatu Digitalen Erregelamendua)

(EEEren esparruan erabiltzeko testua)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNAREN KONTSEILUAK

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratua aztertu dute, batez ere haren 114. artikulua;

Europako Batzordearen proposamena aztertu dute;

Aurretik, legegintza-testua helarazi zaie parlamentu nazionalai;

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute (1).

Eskualdeetako Lantaldearen irizpena aztertu dute (2).

Legegintzako prozedura arrunta aplikatu dute (3).

Honako hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Zerbitzu digitalak, oro har, eta lineako plataformak, bereziki, geroz eta garrantzitsuagoak dira ekonomian, batez ere Europar Batasuneko barne-merkatuan: enpresei aukera ematen diete Batasun osoko erabiltzaileengana heltzeko, mugaz haraindiko merkataritza ahalbideratzen dute eta negozio-aukera guztiz berriak eskaintzen dizkiete Batasuneko enpresei, bertako kontsumitzaileen onurarako.



(2) Al mismo tiempo, entre esos servicios digitales, los servicios básicos de plataforma presentan una serie de características de las que pueden aprovecharse las empresas prestadoras de dichos servicios. Un ejemplo de esas características de los servicios básicos de plataforma son las economías de escala extremas, que a menudo se derivan de los costes marginales prácticamente nulos que implica añadir usuarios profesionales o usuarios finales. Otras características semejantes de los servicios básicos de plataforma son unos efectos de red muy potentes, una capacidad de conectar a muchos usuarios profesionales con muchos usuarios finales gracias al carácter multilateral de estos servicios, un importante grado de dependencia de los usuarios profesionales y los usuarios finales, efectos de cautividad, falta de multiconexión para el mismo propósito por parte de los usuarios finales, integración vertical y ventajas derivadas de los datos. Todas estas características, combinadas con las prácticas desleales de las empresas prestadoras de los servicios básicos de plataforma, pueden tener el efecto de socavar sustancialmente la disputabilidad de los servicios básicos de plataforma, así como afectar a la equidad de la relación comercial entre las empresas prestadoras de dichos servicios y sus usuarios profesionales y usuarios finales. En la práctica, esto conduce a una disminución rápida y potencialmente amplia de las opciones de los usuarios profesionales y los usuarios finales y, por lo tanto, puede conferir al proveedor de esos servicios la posición de «guardián de acceso». Al mismo tiempo, es preciso reconocer que los servicios que actúan con fines no comerciales, como los proyectos colaborativos, no deben

(2) Gainera, zerbitzu digitalen artean, oinarritzko plataforma-zerbitzuen ezaugarri batzuk baliagarriak dira zerbitzu horiek ematen dituzten enpresentzat. Oinarritzko plataforma-zerbitzuen ezaugarrietako bat eskalako ekonomiak muturrekoak izatea da. Hori, sarritan, erabiltzaile profesionalak edo azken erabiltzaileak gehitzeak ia kostu marjinalik ez eragitearen ondorioa izaten da. Oinarritzko plataforma-zerbitzuek onuragarriak diren beste ezaugarri batzuk ere badituzte: sare-ondorio oso eragingarriak; erabiltzaile profesional asko azken erabiltzaile askorekin konektatzeko ahala, zerbitzuon izaera multilateralari esker; erabiltzaile profesionalekiko eta azken erabiltzaileekiko mendekotasun handia; gatibutasun-ondorioak; azken erabiltzaileek xede bererako hainbat aldiz konektatu behar ez izatea; integrazio bertikala, eta datuen ondoriozko abantailak. Ezaugarri horiek guztiak, bai eta oinarritzko plataforma-zerbitzuak ematen dituzten enpresen jardunbide desleialak ere, oso kaltegarriak izan daitezke oinarritzko plataforma-zerbitzuen lehiarako. Gainera, eragina eduki dezakete zerbitzu horiek ematen dituzten enpresen eta beren erabiltzaile profesionalen eta azken erabiltzaileen arteko merkataritza-harremanen ekitatean. Praktikan, horren guztiaren ondorioz, erabiltzaile profesionalen eta azken erabiltzaileen aukerak erabat eta azkar murrizten dira, eta, horregatik, gerta liteke zerbitzu horiek ematen dituztenak «sarbide-zaindari» gisa aritzea. Gainera, onartu behar da merkataritza-xederik ez duten zerbitzuak (esaterako, lankidetzaproiektuak) ez direla hartu behar oinarritzko plataforma-zerbitzutzat erregelamendu honen ondorioetarako.



considerarse servicios básicos de plataforma a los efectos del presente Reglamento.

(3) Un reducido número de grandes empresas prestadoras de servicios básicos de plataforma han acumulado un gran poder económico, lo que podría cualificarlas para que se las designe como guardianes de acceso de conformidad con el presente Reglamento. Por lo general, tienen la capacidad de conectar a muchos usuarios profesionales con muchos usuarios finales a través de sus servicios, lo que, a su vez, les permite trasladar sus ventajas, como su acceso a grandes cantidades de datos, de un ámbito de actividad a otro. Algunas de estas empresas controlan ecosistemas completos de plataformas en la economía digital y a los operadores de mercado existentes o nuevos, con independencia de lo innovadores y eficientes que puedan ser, les resulta sumamente difícil, por motivos estructurales, competir con ellos o disputarles el mercado. La disputabilidad se reduce en particular debido a la existencia de enormes obstáculos a la entrada o la salida del mercado, como unos altos costes de inversión, que no pueden recuperarse, o al menos no fácilmente, en caso de salida, y la ausencia de algunos insumos clave en la economía digital, como los datos, o un acceso reducido a estos. Como consecuencia de ello, aumenta la probabilidad de que los mercados subyacentes no funcionen bien o de que pronto dejen de funcionar bien.

(4) Es probable que la combinación de esas características de los guardianes de acceso conduzca, en muchos casos, a graves desequilibrios en el poder de negociación y, en consecuencia, a prácticas y condiciones injustas para los usuarios profesionales, así como para los usuarios finales de los servicios

(3) Oinarritzko plataforma-zerbitzuak ematen dituzten enpresa handi bakar batzuek ahal ekonomiko handia bildu dute. Enpresa horiek, erregelamendu honen arabera, sarbide-zaindaritzat jo daitezke. Oro har, enpresa horiek beren zerbitzuen bidez erabiltzaile profesional asko azken erabiltzaile askorekin konekta ditzakete, eta horri esker beren abantailak (esaterako, datu ugari eskuratzea) jardun-eremu batetik beste batera eraman ditzakete. Enpresa horietako batzuek plataforma-ekosistema osoak kontrolatzen dituzte ekonomia digitalean, eta merkatuko eragileek, lehendik ari direnek zein berriek, egiturazko arazoak direla eta, oso zail dute haiekin lehiatzea edo merkatuan norgehiagoka aritzea, berritzaileak eta eraginkorrak izan arren. Lehia murrizten da, batez ere, eragozpen handiak daudelako merkatuan sartzeko eta handik irteteko, irteten direnek ezin dituztelako berreskuratu inbertsio-kostu handiak (edo, behintzat, berreskuratzen zailak direlako) eta ekonomia digitalerako funtsezkoak diren intsumo batzuk (esaterako, datuak) ez daudelako edo gaitz direlako eskuratzen. Horren guztiaren ondorioz, arrisku gehiago dago azpiko merkatuek ondo ez funtzionatzeko edo denbora gutxian haien funtzionamenduak okerrera egiteko.

(4) Kasu askotan, baliteke sarbide-zaindarien ezaugarri horien guztien ondorioz desoreka handiak gertatzea negoziazio-ahalen artean eta, horregatik, sarbide-zaindarien ematen dituzten oinarritzko plataforma-zerbitzuen erabiltzaile profesionalak eta azken erabiltzaileak



básicos de plataforma prestados por los guardianes de acceso, en detrimento de los precios, la calidad, la competencia leal, las opciones y la innovación en el sector digital.

(5) De ello se deduce que la dinámica del mercado a menudo es incapaz de garantizar resultados económicos justos con respecto a los servicios básicos de plataforma. Aunque los artículos 101 y 102 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE) se aplican a la conducta de los guardianes de acceso, el ámbito de aplicación de dichas disposiciones se limita a determinados casos de poder de mercado (por ejemplo, dominio en mercados específicos) y de comportamiento contrario a la competencia, y el control del cumplimiento se produce ex post y requiere una investigación extensa caso por caso de hechos a menudo muy complejos. Además, el Derecho de la Unión vigente no aborda, o al menos no de manera eficaz, los retos para el funcionamiento eficaz del mercado interior que plantea la conducta de los guardianes de acceso que no son necesariamente dominantes en términos de derecho de la competencia.

(6) Los guardianes de acceso tienen una gran influencia en el mercado interior, dado que proporcionan puertas de acceso para que un gran número de usuarios profesionales lleguen a los usuarios finales en cualquier lugar de la Unión y en diferentes mercados. El impacto negativo de las prácticas desleales en el mercado interior y la escasa disputabilidad de los servicios básicos de plataforma, incluidas las consecuencias sociales y económicas negativas de tales prácticas desleales, han llevado a los legisladores nacionales y a los reguladores sectoriales a actuar. Ya se han adoptado a escala nacional o propuesto una serie de

bidezkoak ez diren jardunbideak eta baldintzak jasatea eta horrek guztiak kalte egitea sektore digitaleko prezioei, kalitateari, lehia leialari, aukerei eta berrikuntzei.

(5) Hortik ondorioztatzen da merkatuaren dinamika sarritan ez dela gauza bermatzeko oinarritzko plataforma-zerbitzuen emaitza ekonomikoak bidezkoak izatea. Nahiz eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 101. eta 102. artikulua sarbide-zaindarien jokabideei aplikatu, xedapen horien aplikazio-eremuan ez dira sartzen merkatu-ahalaren kasu jakin batzuk (esaterako, merkatu jakin batzuen domeinua) eta lehiaren kontrako jokabide batzuk baino; gainera, haiek betetzen diren ala ez ex post kontrolatzen da eta horretarako gertaerak (maiz oso konplexuak izaten direnak) kasuz kasu ikertu behar izaten dira. Gainera, Batasuneko indarreko zuzenbideak ez die heltzen (ez behar bezala, behintzat) lehiaren zuzenbidearen arabera nagusi ez diren sarbide-zaindarien jokabideak Batasuneko barne-merkatuaren funtzionamendu eraginkorrerako sortzen dituen erronkei.

(6) Sarbide-zaindarien eragin handia dute Batasuneko barne-merkatuan, zeren eta berek ematen baitiete sarbidea erabiltzaile profesionalei azken erabiltzaileengana heltzeko Batasuneko eremuko edozer tokitan eta zenbait merkatutan. Batasuneko barne-merkatuko jardunbide desleialen eragina zein kaltegarria den ikusirik (ondorio kaltegarriak gizartean eta ekonomian) eta oinarritzko plataforma-zerbitzuen arteko lehia urria dela ohartuta, estatuetako legegileek eta sektore-arautzaileek esku hartzea erabaki dute. Batasuneko estatuetan dagoeneko ezarri dira (edo proposatu) zenbait arau-konponbide zerbitzu digitalen arloko jardunbide desleialei



soluciones normativas para abordar las prácticas desleales y la disputabilidad de los servicios digitales o, al menos, con respecto a algunas de ellas. Esto ha creado soluciones normativas divergentes, lo que provoca la fragmentación del mercado interior y, por lo tanto, aumenta el riesgo de incremento de los costes de cumplimiento debido a la existencia de diferentes conjuntos de requisitos normativos nacionales.

(7) Por consiguiente, el objetivo del presente Reglamento es contribuir al buen funcionamiento del mercado interior estableciendo normas para garantizar la disputabilidad y la equidad de los mercados en el sector digital en general y garantizarlas a los usuarios profesionales y los usuarios finales de servicios básicos de plataforma prestados por guardianes de acceso en particular. Los usuarios profesionales y los usuarios finales de servicios básicos de plataforma prestados por guardianes de acceso deben contar en toda la Unión con las garantías normativas adecuadas contra las prácticas desleales de los guardianes de acceso, a fin de facilitar las actividades comerciales transfronterizas dentro de la Unión, mejorando así el correcto funcionamiento del mercado interior, y de eliminar la fragmentación existente o que podría aparecer en los ámbitos específicos a los que se aplica el presente Reglamento. Además, aunque los guardianes de acceso tienden a adoptar modelos de negocio y estructuras algorítmicas mundiales o al menos paneuropeos, también pueden adoptar, y en algunos casos así lo han hecho, diferentes condiciones y prácticas comerciales en distintos Estados miembros, lo que puede crear disparidades entre las condiciones de competencia de los usuarios

(batzuei, behintzat) eta lehiari heltzeko. Ondorioz, era askotako arau-konponbideak sortu dira, eta horrek Batasuneko barne-merkatua zatitu duenez, betetze-kostuak gehitzeko arriskua areagotu da, estatu bakoitzak bere arau-baldintzak ezarri baititu.

(7) Beraz, erregelamendu honen helburua da Batasuneko barne-merkatuaren funtzionamendu ona sustatzea, eta horretarako zenbait arau ezarriko dira lehia eta ekitatea bermatzeko sektore digitaleko merkatuetan, oro har, eta sarbide-zaindarien ematen dituzten oinarritzko plataforma-zerbitzuen erabiltzaile profesionali eta azken erabiltzaileei, bereziki. Sarbide-zaindarien ematen dituzten oinarritzko plataforma-zerbitzuen erabiltzaile profesionalak eta azken erabiltzaileek sarbide-zaindarien jardunbide desleialen kontrako arau-berme egokiak eduki behar dituzte Batasun osoan, Batasunaren barruko mugaz haraindiko merkataritza-jarduerak errazteko. Horrela, Batasuneko barne-merkatuaren funtzionamendua hobetuko da eta erregelamendu hau aplikatuko den eremuetan dagoen edo sor litekeen zatikatzea ezabatuko da. Gainera, nahiz eta sarbide-zaindarien joera eduki mundu osoa (edo Europa osoa, gutxienez) hartzen duten negozio-ereduak eta egitura algoritmikoak erabiltzeko, Batasuneko estatu bakoitzean berariazko baldintzak eta merkataritza-jardunbideak aplika ditzakete, eta kasu batzuetan hala egin dute. Ondorioz, desberdintasunak ager daitezke sarbide-zaindarien ematen dituzten oinarritzko plataforma-zerbitzuen lehia-baldintzen



de los servicios básicos de plataforma prestados por guardianes de acceso, en detrimento de la integración del mercado interior.

(8) Mediante la aproximación de legislaciones nacionales divergentes, es posible eliminar los obstáculos a la libertad de prestar y recibir servicios, también servicios minoristas, dentro del mercado interior. En consecuencia, debe establecerse un conjunto armonizado de obligaciones jurídicas a escala de la Unión para garantizar la disputabilidad y la equidad de los mercados digitales con la presencia de guardianes de acceso en el mercado interior en beneficio de la economía de la Unión en su conjunto y, en última instancia, de los consumidores de la Unión.

(9) La fragmentación del mercado interior solo puede evitarse eficazmente si se impide a los Estados miembros aplicar normas nacionales que entren en el ámbito de aplicación del presente Reglamento y que persigan sus mismos objetivos. Eso no excluye la posibilidad de que se apliquen a los guardianes de acceso, en el sentido del presente Reglamento, otras normas nacionales que persigan otros objetivos de interés público legítimos, según se establecen en el TFUE, o razones imperiosas de interés general reconocidas en la jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea (en lo sucesivo, «Tribunal de Justicia»).

(10) Al mismo tiempo, dado que el presente Reglamento tiene por objeto complementar la ejecución del Derecho de la competencia, debe aplicarse sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 101 y 102 del TFUE, en las normas nacionales de

artean, eta horrek Batasuneko barne-merkatuaren integrazioa okertu dezake.

(8) Estatuen askotariko legeriak bateratuta, zerbitzuak (baita txikizkakoak ere) emateko eta jasotzeko askatasunak jasaten dituen oztupoak ezabatu daitezke Batasuneko barne-merkatuan. Beraz, Batasun osorako harmonizatutako betebeharrak juridikoen multzoa ezarri behar da, Batasunaren barruan sarbide-zaindariak ari diren merkatu digitaletako lehia eta ekitatea bermatzeko Batasuneko ekonomiaren onerako eta, azken batean, Batasuneko kontsumitzaile guztien onurarako.

(9) Batasuneko barne-merkatuaren zatikatzea saihesteko modu eraginkor bakarra da Batasuneko estatuei eragozteko bakoitzak bere arau nazionalak aplikatzea, baldin eta erregelamendu honen aplikazio-eremuan badaude eta horren xede berekoak badira. Hori gorabehera, estatuek sarbide-zaindariei (erregelamendu honen arabera definituta dauden horiei) interes publiko legitimoko beste helburu batzuk (EBFTn ezarritakoak) dituzten arau nazionalak aplikatu diezazkiekete, bai eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudenzian (hemendik aurrera «Justizia Auzitegia») aintzatetsitako interes orokorreko ezinbesteko arrazoiak ere.

(10) Horrez gainera, kontuan hartuta erregelamendu honen helburua lehiaren zuzenbidearen betearazpena osatzea dela, hauetan xedatzen dena ere aplikatu behar da: EBFTren 101. eta 102. artikuluko; estatu-tako lehiari buruzko arau nazionalak;



competencia correspondientes y en otras normas nacionales de competencia relativas a conductas unilaterales basadas en una valoración individualizada de las posiciones en el mercado y el comportamiento en este, incluidos sus efectos reales o potenciales y el alcance exacto del comportamiento prohibido, y que prevén la posibilidad de que las empresas presenten justificaciones fundadas sobre la eficiencia y los objetivos del comportamiento de que se trate, así como de lo dispuesto en las normas nacionales relativas al control de las concentraciones. No obstante, la aplicación de esas normas no debe afectar a las obligaciones impuestas a los guardianes de acceso en virtud del presente Reglamento ni a su aplicación uniforme y efectiva en el mercado interior.

(11) Los artículos 101 y 102 del TFUE y las correspondientes normas nacionales de competencia relativas a conductas anticompetitivas multilaterales y unilaterales, así como al control de las concentraciones, tienen como objetivo la protección de la competencia no falseada en el mercado. El presente Reglamento persigue un objetivo complementario, pero distinto al de proteger la competencia no falseada en un mercado determinado, tal como se define en el Derecho de la competencia, que es el de garantizar que los mercados donde haya guardianes de acceso sean y sigan siendo disputables y equitativos, independientemente de los efectos reales, potenciales o supuestos sobre la competencia en un mercado determinado de la conducta de un determinado guardián de acceso al que se aplique el presente Reglamento. Por lo tanto, el presente Reglamento tiene por objeto proteger un

merkatuko posizioen eta merkatuaren portaeren banako azterketan oinarritutako alde bakarreko jokabideei buruzko lehia-arau nazionalak, barne hartuta jokabide horien benetako ondorioak edo ondorio potentzialak eta debekatutako portaeren irismen zehatza ere —zeinek ezartzen baitute enpresek beren jokabideen eraginkortasunean eta helburuetan oinarritutako justifikazioak aurkez ditzaketela—, eta, azkenik, kontzentrazioen kontrolari buruzko arau nazionalak. Hala ere, arau horiek aplikatzeak ez du eraginik izan behar sarbide-zaindariei erregelamendu honen bidez ezartzen zaizkien betebeharretan, ez eta horiek Batasuneko barne-merkatu osoan modu eraginkorrean aplikatzean ere.

(11) Xede bera dute EBFTren 101. eta 102. artikuluek, lehiaren kontrako aldebakarreko jokabideei eta jokabide multilateralei buruzko lehia-arau nazionalak eta kontzentrazioen kontrolari buruzko arau nazionalak: merkatuko lehia ez aizuntzea. Erregelamendu honen helburua ez da merkatu jakin bateko lehia ez aizuntzea (lehiaren zuzenbidean zehazten denaren arabera), baizik eta horren osagarria: bermatzea sarbide-zaindariak ari diren merkatuetan lehia eta ekitatea egotea, erregelamendu hau aplikatzen zaion sarbide-zaindari baten jokabideak merkatu jakin bateko lehiari sortzen dituen edo sor litzakeen ondorioak gorabehera. Horrenbestez, erregelamendu honen bitartez aurreko arauen babespeko interes juridikoa ez beste bat babesten da, eta arau horien aplikazioa eragotzi gabe aplikatu behar da.



interés jurídico diferente del protegido por esas normas y debe aplicarse sin perjuicio de la aplicación de estas últimas.

(12) El presente Reglamento también debe aplicarse sin perjuicio de las normas derivadas de otros actos de Derecho de la Unión que regulan determinados aspectos de la prestación de servicios incluidos en el ámbito del presente Reglamento, en particular los Reglamentos (UE) 2016/679 (4) y (UE) 2019/1150 (5) del Parlamento Europeo y del Consejo y un reglamento relativo a un mercado único de servicios digitales, y las Directivas 2002/58/CE (6), 2005/29/CE (7), 2010/13/UE (8), (UE) 2015/2366 (9), (UE) 2019/790 (10) y (UE) 2019/882 (11) del Parlamento Europeo y del Consejo, y la Directiva 93/13/CEE (12) del Consejo, así como de las normas nacionales por las que se apliquen dichos actos de la Unión.

(13) La escasa disputabilidad y las prácticas desleales en el sector digital son más frecuentes y pronunciadas por lo que respecta a algunos servicios digitales que por lo que respecta a otros. Afectan especialmente a los servicios digitales generalizados y de uso común, que sirven principalmente de intermediarios directos entre los usuarios profesionales y los usuarios finales y presentan con mayor frecuencia características como economías de escala extremas unos efectos de red muy potentes, la capacidad de conectar a muchos usuarios profesionales con muchos usuarios finales gracias al carácter multilateral de los servicios, efectos de cautividad, falta de multiconexión o integración vertical. A menudo, esos servicios digitales son prestados por una sola gran empresa, o por

(12) Erregelamendu honen aplikazioak ez du eragozten Batasuneko zuzenbideko beste egintza batzuen ondoriozko arauak —beraren eremuko zerbitzuak ematearen inguruko alderdi batzuk arautzen dituztenak— aplikatzea, honako hauek bereziki: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua (4) eta (EB) 2019/1150 Erregelamendua (5) eta zerbitzu digitalen merkatu bakarri buruzko erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2002/58/EE Zuzentaraua (6), 2005/29/CE Zuzentaraua (7), 2010/13/EB Zuzentaraua (8), (EB) 2015/2366 Zuzentaraua (9), (EB) 2019/790 Zuzentaraua (10) eta (EB) 2019/882 Zuzentaraua (11), Kontseiluaren 93/13/EEE Zuzentaraua (12), eta Batasunaren egintza horiek aplikatzeko ezarritako arau nazionalak.

(13) Sektore digitalean, zerbitzu digital batzuetan beste batzuetan baino sarriago gertatzen da lehia urria izatea eta enpresek desleialtasunarekin aritzea, eta larritasun handiagoarekin, gainera. Lehia urria eta jardunbide desleialak batez ere erabilera orokorreko zerbitzu digitaletan gertatzen dira. Zerbitzu horiek erabiltzaile profesionalen eta azken erabiltzaileen arteko zuzeneko bitartekaritza-lanak egiten dituzte, eta ezaugarri hauek eduki ohi dituzte: muturreko eskalako ekonomiak; sare-ondorio oso eragingarriak; erabiltzaile profesional asko azken erabiltzaile askorekin konektatzeko ahala, haien izaera multilateralari esker; gatibutasun-ondorioak; azken erabiltzaileek xede bererako hainbat aldiz konektatu behar ez izatea, edo integrazio bertikala. Sarritan, zerbitzu digital



un número muy reducido de grandes empresas. La mayor parte de las veces, esas empresas se han impuesto como guardianes de acceso para usuarios profesionales y usuarios finales, con repercusiones de gran alcance. En particular, han adquirido la capacidad de establecer fácilmente condiciones comerciales de manera unilateral y perjudicial para sus usuarios profesionales y usuarios finales. Por consiguiente, es necesario centrarse únicamente en los servicios digitales que más utilizan los usuarios profesionales y los usuarios finales y en relación con los cuales las preocupaciones sobre la escasa disputabilidad y las prácticas desleales de los guardianes de acceso son más evidentes y apremiantes desde la perspectiva del mercado interior.

(14) En particular, los servicios de intermediación en línea, los motores de búsqueda en línea, los sistemas operativos, las redes sociales en línea, los servicios de plataforma de intercambio de vídeos, los servicios de comunicaciones interpersonales independientes de la numeración, los servicios de computación en nube, los asistentes virtuales, los navegadores web y los servicios de publicidad en línea, incluidos los servicios de intermediación publicitaria, tienen la capacidad de afectar a un gran número de usuarios finales y empresas, lo que conlleva el riesgo de que se produzcan prácticas comerciales desleales. Por lo tanto, deben incluirse en la definición de los servicios básicos de plataforma y entrar en el ámbito de aplicación del presente Reglamento. Los servicios de intermediación en línea también pueden desempeñar un papel en el ámbito de los servicios financieros, y pueden hacer de intermediario o ser utilizados para prestar los servicios

horiek enpresa handi bakar batek ematen ditu, edo enpresa handi bakar batzuek. Leku gehienetan, enpresa horiek sarbide-zaindari bihurtu dira erabiltzaile profesionalentzat eta azken erabiltzaileentzat, eta horrek irismen handiko ondorioak sortzen ditu. Hain zuzen ere, gaitasuna lortu dute beren kabuz erraz ezartzeko erabiltzaile profesionalentzat eta azken erabiltzaileentzat kaltegarriak diren merkataritza-baldintzak. Horregatik, erabiltzaile profesionalak eta azken erabiltzaileak gehien erabiltzen dituzten zerbitzu digitaletan bakarrik ipini behar da arreta; hain zuzen ere, lehia urriak eta sarbide-zaindarien jardunbide desleialek sortzen duten kezka agerikoena eta Batasuneko barne-merkatuaren ikuspegitik larriena den zerbitzu digitaletan.

(14) Horren ildotik, honako hauek dira azken erabiltzaile eta enpresa askori eragiteko ahala dutenak eta, horrenbestez, merkataritzako jardunbide desleialak gertatzeko arriskua sortzen dutenak: lineako bitartekaritza-zerbitzuak, lineako bilatzaileak, sistema eragileak, lineako sare sozialak, bideo-trukerako plataforma-zerbitzuak, zenbakiekin zerikusirik ez duten pertsonen arteko komunikazio-zerbitzuak, hodei-konputazioko zerbitzuak, laguntzaile birtualak, web-nabigatzaileak eta lineako publizitate-zerbitzuak (publizitate-bitartekaritzako zerbitzuak barne). Horregatik, oinarritzako plataforma-zerbitzuen definizioaren barnean egon behar dira eta erregelamendu honen aplikazio-eremuan sartu behar dira. Lineako bitartekaritza-zerbitzuek finantza-zerbitzuen arloan ere jardun dezakete, eta bitartekari-lanak egin ditzakete Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/1535 Zuzentarauaren (13) II. eranskinean aipatzen



enumerados de una manera no exhaustiva en el anexo II de la Directiva (UE) 2015/1535 del Parlamento Europeo y del Consejo (13). A efectos del presente Reglamento, la definición de servicios básicos de plataforma debe ser neutral desde el punto de vista tecnológico y debe entenderse que incluye los servicios prestados en o a través de diversos medios o dispositivos, como los televisores inteligentes o los servicios digitales integrados en vehículos. En determinadas circunstancias, el concepto de usuarios finales debe comprender a los usuarios que tradicionalmente se consideran usuarios profesionales, pero en determinadas situaciones no utilizan los servicios básicos de plataforma para suministrar productos o prestar servicios a otros usuarios finales, como por ejemplo las empresas que dependen de los servicios de computación en nube para sus propios fines.

(15) El hecho de que un servicio digital sea un servicio básico de plataforma no genera en sí mismo preocupaciones suficientemente graves en materia de disputabilidad ni de prácticas desleales. Dichas preocupaciones surgen únicamente cuando un servicio básico de plataforma constituye una puerta de acceso importante y lo explota una empresa con una gran influencia en el mercado interior y una posición afianzada y duradera, o una empresa que previsiblemente va a gozar de tal posición en un futuro próximo. Por consiguiente, el conjunto específico de normas armonizadas previstas en el presente Reglamento debe aplicarse únicamente a las empresas designadas sobre la base de esos tres criterios objetivos, y solo debe aplicarse a los servicios básicos de plataforma de dichas empresas que constituyan

diren zerbitzuak egiteko (eranskinean ez dira zerbitzu guzti-guztiak jasotzen), edo horretarako balia daitezke. Erregelamendu honen ondorioetarako, oinarritzko plataforma-zerbitzuen definizioa neutrala izan behar da teknologiaren ikuspegitik, eta horren barrukotzat jo behar dira telebista adimendunak eta halako baliabideen edo gailuen bitartez ematen diren zerbitzuak, bai eta ibilgailuetan txertatutako zerbitzu digitalak ere. Zenbait kasutan, azken erabiltzailetzat jo behar dira erabiltzaile profesionaltzat hartu izan diren baina batzuetan oinarritzko plataforma-zerbitzuak beste azken erabiltzaile batzuei produktuak hornitzeko edo zerbitzuak egiteko erabiltzen ez dituztenak; esaterako, beren xedeak betetzeko hodei-konputazioko zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresak.

(15) Zerbitzu digital bat oinarritzko plataforma-zerbitzua izateak ez du berez sortzen ez lehiaren ez jardunbide desleialen inguruko kezka larriarik. Kezka larria honako kasu honetan baino ez da sortzen: oinarritzko plataforma-zerbitzu bat sarbide garrantzitsua izanik, hori ustiatzen duen enpresak eragin handia daukanean Batasuneko barne-merkatuan eta bertan posizio sendoa eta iraunkorra daukanean, edo luze gabe edukiko duela uste denean. Beraz, erregelamendu honetan ezartzen den arau harmonizatuen multzoa hiru irizpide objektibo horien arabera izendatutako enpresei soilik aplikatu behar zaie, eta erabiltzaile profesionalak azken erabiltzaileengana heltzeko banakako sarbide garrantzitsuak diren enpresa horien oinarritzko plataforma-zerbitzuei baino ez zaie aplikatu behar. Oinarritzko plataforma-zerbitzuak ematen dituen enpresa batek



individualmente una puerta de acceso importante para que los usuarios profesionales lleguen a los usuarios finales. El hecho de que sea posible que una empresa prestadora de servicios básicos de plataforma no solo intermedie entre usuarios profesionales y usuarios finales, sino también entre usuarios finales y usuarios finales (por ejemplo, en el caso de los servicios de comunicaciones interpersonales independientes de la numeración) no debe impedir que se llegue a la conclusión de que dicha empresa es o podría ser una puerta de acceso importante para que los usuarios profesionales lleguen a los usuarios finales.

(16) Con el fin de garantizar la aplicación efectiva del presente Reglamento a las empresas prestadoras de servicios básicos de plataforma que tengan más probabilidades de satisfacer esos requisitos objetivos, y en los casos en los que las prácticas desleales que reducen la disputabilidad sean más extendidas y tengan mayor repercusión, la Comisión debe poder designar directamente como guardianes de acceso a las empresas prestadoras de servicios básicos de plataforma que alcancen ciertos umbrales cuantitativos. En cualquier caso, dichas empresas deben someterse a un procedimiento de designación rápida que ha de comenzar una vez que el presente Reglamento sea aplicable.

(17) El hecho de que una empresa tenga un gran volumen de negocios en la Unión y preste un servicio básico de plataforma en al menos tres Estados miembros constituye un indicio convincente de que esa empresa tiene una gran influencia en el mercado interior. Esto es igualmente cierto cuando una empresa que presta un servicio básico de plataforma en al menos tres Estados

bitartekari-lanak erabiltzaile profesionalen eta azken erabiltzaileen artean ez ezik azken erabiltzaile batzuen eta beste azken erabiltzaile batzuen artean ere egin ahal izateak (esaterako, zenbakiekin zerikusirik ez duten pertsonen arteko komunikazio-zerbitzuak) ez du kentzen ondorioztatzeko enpresa hori sarbide garrantzitsua dela edo izan litekeela, erabiltzaile profesionalak azken erabiltzaileengana heltzeko.

(16) Erregelamendu hau baldintza objektibo horiek betetzeko aukera gehien dituzten oinarritzko plataforma-zerbitzuen enpresei aplikatu ahal izateko, bai eta lehia murrizten duten jardunbide desleialak zabalduen dauden eta ondorio handienak sortzen dituzten kasuetan ere, Batzordeak bere esku eduki behar du oinarritzko plataforma-zerbitzuak zuzenean sarbidezaindari izendatzeko ahala, atalase kuantitatibo jakin batzuetara helduz gero. Nolanahi ere, enpresa horiek izendatze-prozedura azkarra onartu beharko dute erregelamendu hau aplikatzen hasten denean.

(17) Batasunaren barruan negozio-bolumen handia daukan enpresa batek Batasuneko hiru estatutan gutxienez oinarritzko plataforma-zerbitzu bat ematea Batasuneko barne-merkatuan eragin handia daukalako zantzu sendoa da. Halaber, horren zantzua da Batasuneko hiru estatutan gutxienez oinarritzko plataforma-zerbitzu bat ematen duen enpresa batek burtsa-balio edo



miembros tiene una capitalización bursátil muy elevada o un valor justo de mercado equivalente. Por lo tanto, debe presumirse que una empresa que presta un servicio básico de plataforma tiene una gran influencia en el mercado interior cuando presta un servicio básico de plataforma en al menos tres Estados miembros y cuando el volumen de negocios logrado por su grupo en la Unión es igual o superior a un umbral alto determinado, o cuando la capitalización bursátil del grupo es igual o superior a un valor absoluto alto determinado. Para las empresas prestadoras de servicios básicos de plataforma que pertenecen a empresas que no cotizan en un mercado regulado, debe tomarse como referencia el valor justo de mercado equivalente. La Comisión debe poder utilizar sus poderes para adoptar actos delegados a fin de elaborar una metodología objetiva para calcular ese valor.

Un volumen de negocios elevado de un grupo obtenido en la Unión, unido a un número de usuarios de servicios básicos de plataforma en la Unión equivalente al del umbral, refleja una capacidad relativamente grande de monetizar a esos usuarios. Una elevada capitalización bursátil en relación con el mismo número de usuarios en la Unión refleja un potencial relativamente grande para monetizar a esos usuarios en un futuro próximo. Este potencial de monetización, a su vez, refleja, en principio, la posición de puerta de acceso de las empresas correspondientes. Ambos indicadores reflejan, además, la capacidad financiera de las empresas correspondientes, incluida su capacidad de aprovechar su acceso a los mercados financieros para reforzar su posición. Esto puede suceder, por ejemplo, cuando este acceso superior se utiliza para

bidezko merkatu-balio oso handia edukitzea ere. Beraz, oinarritzko plataforma-zerbitzu bat ematen duen enpresa batek Batasuneko barne-merkatuan eragin handia daukala ulertuko da Batasuneko hiru estatutan gutxienez oinarritzko plataforma-zerbitzu bat ematen duenean eta bere taldeak Batasunean lortutako negozio-bolumena ezarritako atalase batera iristen denean edo hortik gorakoa denean, edo taldearen burtsa-balioa ezarritako balio absolutu handi jakin baten beste edo hortik gorakoa denean. Oinarritzko plataforma-zerbitzua ematen duen enpresa merkatu arautuan kotizatzen ez duen enpresa batena bada, bidezko merkatu-balioa hartuko da erreferentziatzat. Batzordeak egintza eskuordetuak emateko ahalak erabili ahal izango ditu balio hori kalkulatzeko metodo objektiboa prestatzeko.

Talde batek Batasunean negozio-bolumen handia edukitzeak eta, horrez gainera, Batasunean dauzkan oinarritzko plataforma-zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua atalasea iristek adierazten dute talde horrek gaitasun nahiko handia daukala erabiltzaile horiek monetizatzeko. Batasuneko erabiltzaile kopuru jakin bati dagokion burtsa-balioa handia izateak adierazten du enpresak gaitasun nahiko handia daukala luze gabe erabiltzaile horiek monetizatzeko. Halaber, erabiltzaileak monetizatzeko gaitasun horrek enpresa sarbidea dela adierazten du, printzipioz. Gainera, bi adierazle horiek enpresen finantza-gaitasuna islatzen dute, are beren posizioa sendotzeko finantza-merkatuetan sartzeko gaitasuna ere. Hori gerta daiteke, esaterako, enpresa bat merkatuetan sartzeko gaitasun handiagoaz baliatzen denean beste enpresa bat



adquirir otras empresas, una capacidad que, a su vez, ha demostrado tener posibles efectos negativos en la innovación. La capitalización bursátil también puede reflejar la posición y el efecto futuros previstos de las empresas de que se trate en el mercado interior, a pesar de que el volumen de negocios actual pueda ser relativamente bajo. El valor de la capitalización bursátil debe basarse en un nivel que refleje la capitalización bursátil media de las mayores empresas que cotizan en un mercado regulado de la Unión durante un período adecuado.

(18) Mientras que una capitalización bursátil en el umbral establecido o por encima de él en el último ejercicio debe dar lugar a la presunción de que una empresa prestadora de servicios básicos de plataforma tiene una gran influencia en el mercado interior, debe considerarse que una capitalización bursátil sostenida de la empresa prestadora de servicios básicos de plataforma en el umbral establecido o por encima de él durante tres o más años refuerza aún más dicha presunción.

(19) En cambio, podrían darse una serie de factores relativos a la capitalización bursátil que requerirían una valoración en profundidad para determinar si debe considerarse que una empresa prestadora de servicios básicos de plataforma tiene una gran influencia en el mercado interior. Este podría ser el caso cuando la capitalización bursátil de la empresa prestadora de servicios básicos de plataforma en los ejercicios anteriores estuviese muy por debajo del umbral y la volatilidad de su capitalización bursátil durante el período observado fuese desproporcionada frente a la volatilidad general del mercado de valores

eskuratzeko. Gainera, egiaztatuta dago gaitasun horrek kalte egiten diola berrikuntzari. Enpresa baten burtsa-balioa hark Batasuneko barne-merkatuan edukiko omen dituen posizioaren eta eraginaren isla ere izan daiteke, nahiz eta aribideko negozio-bolumena nahiko baxua izan. Burtsa-balioaren oinarria aldi jakin batean Batasuneko merkatu arautu batean kotizatzen duten enpresa handien batez besteko burtsa-balioa islatzen duen maila izan behar da.

(18) Oinarrizko plataforma-zerbitzuak ematen dituen enpresa batek azken ekitaldian eduki duen burtsa-balioa ezarritako atalasera heldu bada edo horik gorakoa izan bada, pentsa liteke eragin handia daukala Batasuneko barne-merkatuan. Ildo beretik, oinarrizko plataforma-zerbitzuak ematen dituen enpresa batek hiru urtez edo aldi luzeagoan eduki duen burtsa-balioa ezarritako atalasera heldu bada edo horik gorakoa izan bada, uste hori are sendoagoa izan behar da.

(19) Aldiz, baliteke burtsa-balioaren inguruko faktore batzuk sakon aztertu behar izatea argitzeko oinarrizko plataforma-zerbitzuak ematen dituen enpresak eragin handia ote duen Batasuneko barne-merkatuan. Hori gerta liteke oinarrizko plataforma-zerbitzuak ematen dituen enpresak aurreko ekitaldietan eduki duen burtsa-balioa atalasera askogatik heldu ez denean eta aztertutako aldian haren burtsa-balioaren hegakortasuna gehiegizkoa izan denean balore-merkatuko hegakortasun orokorraren aldean, edo beraren burtsa-balioaren ibilbidea, merkatuko joeren aldean,



o la trayectoria de su capitalización bursátil en comparación con las tendencias del mercado fuese incompatible con un crecimiento rápido y unidireccional.

(20) Tener un número muy elevado de usuarios profesionales que dependen de un servicio básico de plataforma para llegar a un número muy elevado de usuarios finales activos mensuales posibilita que la empresa que presta ese servicio influya a su favor en las operaciones de gran parte de los usuarios profesionales e indica, en principio, que esa empresa constituye una puerta de acceso importante. Los respectivos niveles pertinentes para esas cifras deben establecerse de tal manera que representen un porcentaje sustancial de toda la población de la Unión, en lo que respecta a los usuarios finales, y de toda la población de empresas que utilizan servicios básicos de plataforma, para determinar el umbral para los usuarios profesionales. Los usuarios finales activos y los usuarios profesionales deben identificarse y calcularse de modo que se represente adecuadamente la función y el alcance del servicio básico de plataforma específico de que se trate. A fin de proporcionar seguridad jurídica a los guardianes de acceso, los elementos para determinar el número de usuarios finales activos y de usuarios profesionales por servicio básico de plataforma deben indicarse en el anexo del presente Reglamento. Esos elementos pueden verse afectados por los avances técnicos y de otro tipo. Por lo tanto, debe facultarse a la Comisión para que adopte actos delegados con objeto de modificar el presente Reglamento, mediante la actualización de la metodología y de la lista de indicadores utilizados para determinar el

bateraezina denean hazkunde azkar eta norabide bakarrekorekin.

(20) Hilero azken erabiltzaile aktibo askorengana heltzeko oinarritzko plataforma-zerbitzu bat erabili behar duten erabiltzaile profesional asko edukitzeak aukera ematen dio zerbitzu hori ematen duen enpresari bere alde eragiteko erabiltzaile profesionalen askoren eragiketetan, eta, printzipioz, erakusten du enpresa hori sarbide garrantzitsua dela. Kopuru horietarako maila egokiak ezarri behar dira, hain zuzen ere Europar Batasuneko biztanle guztien funtsezko portzentajeak (azken erabiltzaileei dagokienez) eta oinarritzko plataforma-zerbitzuak erabiltzen dituzten enpresen funtsezko portzentajeak adierazten dituztenak, erabiltzaile profesionalen atalasea zehazteko. Azken erabiltzaile aktiboak eta erabiltzaile profesionalak kasuan kasuko oinarritzko plataforma-zerbitzuaren funtzioa eta irismena ongi irudikatzeko moduan identifikatu eta kalkulatu behar dira. Sarbide-zaindarien segurtasun juridikoa izan dezaten, oinarritzko plataforma-zerbitzu bakoitzaren azken erabiltzaile aktiboen eta erabiltzaile profesionalen kopuruak zehazteko elementuak erregelamendu honen eranskinean adierazi behar dira. Elementu horietan eragina izan dezakete aurrerapen teknologikoak eta bestelako aurrerapenak. Beraz, Batzordeari ahalmena eman behar zaio egintza eskuordetuak eman ditzan erregelamendu hau aldatzeko, hain zuzen ere azken erabiltzaile aktiboen eta erabiltzaile profesionalen kopuruak zehazteko erabilitako metodologia eta adierazleak eguneratzeko.



número de usuarios finales activos y de usuarios profesionales activos.

(21) La empresa que presta el servicio básico de plataforma goza de una posición afianzada y duradera en sus operaciones o es previsible que goce de tal posición en el futuro, en particular, cuando la disputabilidad de su posición es limitada. Es probable que así sea cuando esa empresa haya prestado un servicio básico de plataforma en al menos tres Estados miembros a un número muy elevado de usuarios profesionales y usuarios finales a lo largo de un período de al menos tres años.

(22) Dichos umbrales pueden verse afectados por la evolución del mercado y los avances técnicos. Por lo tanto, la Comisión debe estar facultada para adoptar actos delegados con el fin de especificar la metodología para determinar si se alcanzan los umbrales cuantitativos y de ajustarla periódicamente a la evolución del mercado y los avances técnicos cuando sea necesario. Dichos actos delegados no deben modificar los umbrales cuantitativos establecidos en el presente Reglamento.

(23) Una empresa prestadora de servicios básicos de plataforma debe poder refutar, en circunstancias excepcionales, la presunción de que la empresa tiene una gran influencia en el mercado interior demostrando que, aunque alcanza los umbrales cuantitativos establecidos en el presente Reglamento, no cumple los requisitos para la designación como guardián de acceso. La obligación de acreditar que no debe aplicarse la presunción derivada del hecho de haber alcanzado los umbrales cuantitativos debe recaer sobre esa empresa. En su valoración de las pruebas y los argumentos presentados, la Comisión

(21) Oinarrizko plataforma-zerbitzua ematen duen enpresa baten eragiketa-posizioa sendoa eta iraunkorra da (edo hala izango dela pentsa liteke) horretarako lehia mugatuta dagoenean. Seguruenik, hala gertatzen da enpresak azken hiru urteetan, gutxienez, oinarrizko plataforma-zerbitzua erabiltzaile profesional eta azken erabiltzaile askori eman dienean Europar Batasuneko hiru estatutan gutxienez.

(22) Atalase horietan eragina izan dezakete merkatuaren bilakaerak eta aurrerapen teknikoek. Beraz, Batzordeak ahalmena eduki behar du egintza eskuordetuak emateko, helburua izanik enpresak atalase kuantitatiboetara iritsi diren zehazteko metodologia ezartzea eta hori aldian-aldian egokitzea merkatuaren bilakaerara eta aurrerapen teknikoetara, behar izanez gero. Egintza eskuordetu horiek ezin dituzte aldatu erregelamendu honetan ezartzen diren atalase kuantitatiboak.

(23) Oinarrizko plataforma-zerbitzuak ematen dituzten enpresek aukera eduki behar dute ezohiko kasuetan Batasuneko barne-merkatuan eragin handia daukalako presuntzioaren aurka egiteko, frogatuz ezen, nahiz eta erregelamendu honetan ezarritako atalase kuantitatiboetara iritsi, ez dituela betetzen sarbide-zaindaritzat jotzeko baldintzak. Enpresak frogatu behar du ez zaiola aplikatu behar atalase kuantitatiboetara iristeak berekin dakarren presuntzioa. Aurkezten zaizkion frogak eta argudioak aztertzen dituenean, Batzordeak irizpide kuantitatiboekin zuzenean lotuta



únicamente debe tener en cuenta aquellos elementos relacionados de manera directa con los criterios cuantitativos, en particular la influencia de la empresa prestadora de servicios básicos de plataforma en el mercado interior más allá de los ingresos o de la capitalización bursátil, como su tamaño en términos absolutos, y el número de Estados miembros en los que está presente; en qué medida el número real de usuarios profesionales y usuarios finales supera los umbrales y la importancia del servicio básico de plataforma de la empresa, teniendo en cuenta la escala global de las actividades del servicio básico de plataforma de que se trate; y el número de años en los que se hayan alcanzado los umbrales.

Debe descartarse cualquier justificación por motivos económicos con la que se pretenda entrar en la definición del mercado o demostrar eficiencias derivadas de un tipo específico de comportamiento por parte de la empresa prestadora de servicios básicos de plataforma, ya que no es pertinente para la designación como guardián de acceso. Si los argumentos presentados no están suficientemente fundamentados porque no ponen en entredicho de forma manifiesta la presunción, la Comisión debe poder rechazar los argumentos en el plazo de 45 días laborables previsto para la designación. La Comisión debe poder tomar una decisión basándose en información disponible sobre los umbrales cuantitativos en caso de que la empresa prestadora de servicios básicos de plataforma obstruya la investigación incumpliendo las medidas de investigación adoptadas por la Comisión.

(24) También debe preverse la valoración de la función de guardián de acceso de las empresas prestadoras de servicios básicos de

6. Enpresek eta enpresa-elkarteek Batzordearen erabakien bidez agintzen diren ikuskapenak onartu beharko dituzte. Erabaki horietako bakoitzean ikuskapenaren objektua eta xedea zehaztuko dira, hasiera-eguna ezarriko da, 30. eta 31. artikuluetan, hurrenez hurren, arautzen diren zehapen-isunak eta hertsapen-isunak azalduko dira eta adieraziko da erabakia Justizia Auzitegiaren kontrolpean jartzeko eskubidea dagoela.

7. Ikuskapena egin behar den estatu kidean 1.6. artikuluko arauak betearazteko ardura duen agintaritza nazional eskuduneko funtzionarioek eta horrek baimendutako edo izendatutako pertsona guztiek aktiboki lagundu beharko diete Batzordeak baimendutako funtzionarioei eta haiekin batera ari diren gainerako pertsonen, agintaritza horrek edo Batzordeak eskatuta. Horretarako, artikuluko honen 2. eta 4. apartatuetan ezartzen diren eskumenak edukiko dituzte.

8. Batzordeak baimendutako funtzionarioek eta haiekin batera ari diren pertsonen egiaztatzen badute enpresa edo enpresa-elkartea artikuluko honen arabera agindutako ikuskapenaren aurka dagoela, estatu kide interesdunak behar duten laguntza emango die eta, behar izanez gero, poliziak edo antzeko indar edo segurtasun-kidego batek esku hartzeko eskatuko du, ikuskapena egin ahal izateko.

9. Baldin eta araudi nazionalaren arabera artikuluko honen 8. apartatuko laguntza emateko epailearen baimena behar bada,



judicial, la Comisión o la autoridad nacional competente del Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, o los funcionarios autorizados por dichas autoridades la solicitarán. Esta autorización también podrá ser solicitada como medida cautelar.

10. Cuando se solicite la autorización prevista en el apartado 9 del presente artículo, la autoridad judicial nacional verificará la autenticidad de la decisión de la Comisión y que las medidas coercitivas previstas no son arbitrarias ni desproporcionadas en relación con el objeto de la inspección. En su control de la proporcionalidad de las medidas coercitivas, la autoridad judicial nacional podrá pedir a la Comisión, directamente o a través de la autoridad nacional competente del Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, explicaciones detalladas referentes en particular a los motivos que tenga la Comisión para sospechar que se ha infringido el presente Reglamento, así como sobre la gravedad de la supuesta infracción y la naturaleza de la participación de la empresa de que se trate. Sin embargo, la autoridad judicial nacional no podrá poner la necesidad de la inspección, ni exigir que se le presente la información que consta en el expediente de la Comisión. La legalidad de la decisión de la Comisión solo estará sujeta al control del Tribunal de Justicia.

Artículo 24

Medidas cautelares

En caso de urgencia debido al riesgo de daños graves e irreparables para los usuarios profesionales o los usuarios finales de los

Batzordeak, 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen estatu kideko agintaritza nazional eskudunak edo agintaritza horiek baimendutako funtzionarioek eskatuko dute. Baimen hori kautelazko neurri gisa ere eskatu ahal izango da.

10. Artikulu honen 9. apartatuan arautzen den baimena eskatzen denean, agintaritza judizial nazionalak egiaztatu beharko du Batzordearen erabakia egiazkoa den eta ezarritako hertsapen-neurriak arbitrarioak edo neurriz kanpokoak ez diren, ikuskapenaren xedeari dagokionez. Hertsapen-neurrien proportzionaltasuna kontrolatzeko, agintaritza judizial nazionalak Batzordeari eskatu ahal izango dio, zuzenean edo 1.6 artikuluan ezartzen diren arauak betearazteko ardura duen estatu kideko agintaritza nazional eskudunaren bitartez, azaldu dezala zehatz-mehatz zergatik susmatzen duen erregelamendu hau urratu dela eta zer uste duen arau-haustearen larritasunari buruz eta enpresaren parte-hartzeari buruz. Hala ere, agintaritza judizial nazionalak ezin izango du zalantzan jarri ikuskapenaren beharra, ez eta Batzordearen espedientean bildutako informazioa eskatu ere. Batzordearen erabakiaren legezkotasuna Justizia Auzitegiak baino ezin izango du kontrolatu.

24. artikulua

Kautelazko neurriak

Sarbide-zaindari baten erabiltzaile profesionalek edo azken erabiltzaileek kalte larriak eta konponezinak jasateko arriskua



guardianes de acceso, la Comisión podrá adoptar un acto de ejecución en el que se ordenen medidas cautelares contra un guardián de acceso sobre la base de una comprobación de la existencia prima facie de una infracción de los artículos 5, 6 o 7. Únicamente se adoptará dicho acto de ejecución en el marco de un procedimiento iniciado con vistas a la posible adopción de una decisión con arreglo al artículo 29, apartado 1. Se aplicará únicamente durante un período de tiempo determinado y podrá renovarse en la medida en que sea necesario y apropiado. Dicho acto de ejecución se adoptará de conformidad con el procedimiento consultivo a que se refiere el artículo 50, apartado 2.

Artículo 25

Compromisos

1. Si, durante el procedimiento previsto en el artículo 18, el guardián de acceso ofrece adoptar compromisos para los correspondientes servicios básicos de plataforma con el fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6 y 7, la Comisión podrá adoptar un acto de ejecución en el que hará vinculantes esos compromisos para dicho guardián de acceso y declarará que no hay ya motivos para actuar. Dicho acto de ejecución se adoptará de conformidad con el procedimiento consultivo a que se refiere el artículo 50, apartado 2.

2. La Comisión, previa solicitud o por iniciativa propia, podrá reabrir el procedimiento cuando:

dela-eta presaka esku hartu behar duenean, Batzordeak betearazpen-egintza baten bidez haren aurkako kautelazko neurriak agindu ahal izango ditu, 5., 6. edo 7. artikuluetako arau-haustea gertatu dela prima facie egiaztatuz gero. Halako betearazpen-egintzak 29.1 artikuluaaren arabera enpresa batek bere betebeharrak ez dituela betetzen adierazteko erabakia hartzeko prozeduretan soilik eman ahal izango dira. Aldi batez bakarrik aplikatuko dira eta beharrezkoak eta egokiak diren heinean berriro ahal izango dira. Betearazpen-egintza hori 50.2 artikuluan aipatzen den aholku-prozedurari jarraikiz emango da.

25. artikulua

Konpromisoak

1. Baldin eta 18. artikuluan arautzen den prozeduran sarbide-zaindari batek eskaintzen badu konpromisoak hartzea oinarritzko plataforma-zerbitzuetarako, 5., 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren betebeharrak betetzen direla bermatzeko, Batzordeak betearazpen-egintza bat eman ahal izango du, konpromiso horiek lotesleak izan daitezen sarbide-zaindari horrentzat eta jarduteko arrazoirik ez dagoela adierazteko. Betearazpen-egintza hori 50.2 artikuluan aipatzen den aholku-prozedurari jarraikiz emango da.

2. Inork eskatuta edo bere ekimenez, Batzordeak berriz ireki ahal izango du prozedura kasu hauetan:



- a) se haya producido la modificación la situación de hecho respecto de un elemento esencial de la decisión;
- b) el guardián de acceso de que se trate no cumpla sus compromisos;
- c) la decisión se haya basado en informaciones incompletas, inexactas o engañosas facilitadas por las partes;
- d) los compromisos no se hagan efectivos.

3. Si la Comisión considera que los compromisos presentados por el guardián de acceso de que se trate no pueden garantizar el cumplimiento efectivo de las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6 y 7, explicará los motivos para no hacer que dichos compromisos sean vinculantes en la correspondiente decisión de conclusión del procedimiento.

- a) erabakia hartzeko kontuan hartutako funtsezko elementuren bat aldatzen denean;
- b) sarbide-zaindariak bere konpromisoak betetzen ez dituenean;
- c) erabakia alderdiek emandako informazio zehaztugabea, osatugabea edo engainagarria oinarrituta hartzen denean;
- d) konpromisoak betetzen ez direnean.

3. Baldin eta Batzordearen ustez sarbide-zaindari batek aurkeztutako konpromisoek ezin badute bermatu egiatan betetzen direla 5., 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren betebeharrak, prozedura amaitzeko erabakian konpromiso horiek lotesle ez egiteko arrazoiak azalduko ditu.

Artículo 26

Control de las obligaciones y medidas

1. La Comisión adoptará las acciones necesarias para controlar la aplicación y el cumplimiento efectivos de las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6 y 7 y de las decisiones adoptadas en virtud de los artículos 8, 18, 24, 25 y 29. Entre tales acciones se incluye, en particular, la imposición a los guardianes de acceso de la obligación de conservar todos los documentos que se consideren pertinentes para comprobar la aplicación y el cumplimiento de dichas obligaciones y decisiones.

26. artikulua

Betebeharren eta neurrien kontrola

1. Batzordeak behar duen guztia egingo du kontrolatzeko benetan aplikatzen eta betetzen diren ala ez 5., 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren betebeharrak eta 8., 18., 24., 25. eta 29. artikuluen arabera hartzen diren erabakiak. Besteak beste, sarbide-zaindariei ezarriko die betebehar eta erabaki horiek aplikatzen eta betetzen diren ala ez egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen diren dokumentu guztiak gorde behar dituztela.



2. Las acciones previstas en el apartado 1 podrán incluir el nombramiento de expertos y auditores externos independientes, así como el nombramiento de funcionarios de las autoridades nacionales competentes de los Estados miembros, para ayudar a la Comisión a controlar las obligaciones y medidas y proporcionarle experiencia o conocimientos específicos.

Artículo 27

Información de terceros

1. Cualquier tercero, incluidos los usuarios profesionales, los competidores o los usuarios finales de los servicios básicos de plataforma enumerados en la decisión de designación con arreglo al artículo 3, apartado 9, así como sus representantes, podrá informar a la autoridad nacional competente del Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, o directamente a la Comisión, de cualquier práctica o comportamiento de los guardianes de acceso que entre dentro del ámbito de aplicación del presente Reglamento.

2. La autoridad nacional competente del Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, y la Comisión tendrán plena discrecionalidad por cuanto se refiere a las medidas adecuadas y no estarán obligadas a hacer un seguimiento de la información recibida.

3. Cuando la autoridad nacional competente del Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, determine, sobre la base de la información recibida con arreglo al apartado 1 del presente artículo, que puede

2. 1. apartatuan ezartzen diren ekintzetako bat izan daiteke kanpoko aditu eta auditore independenteak izendatzea, bai eta Batasuneko estatuetakoko agintaritzaz nazional eskudunetako funtzionarioak ere, Batzordeari betebeharrak eta neurriak kontrolatzen laguntzeko eta esperientzia edo ezagutza espezifikoak emateko.

27. artikulua

Hirugarrenen informazioa

1. Hirugarren guztiek, are enpresa sarbidez-zaindari izendatzeko erabakian 3.9 artikuluaaren arabera zerrendatutako oinarritzko plataforma-zerbitzuen erabiltzaile profesionalak, lehiakideak eta azken erabiltzaileak eta horien guztien ordezkariak ere, erregelamendu honen aplikazio-eremuaren barruko sarbidez-zaindariaren jardunbide eta jokabide guztien berri eman ahal izango diote 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen estatu kideko agintaritzaz nazional eskudunari edo, bestela, Batzordeari zuzenean.

2. 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen estatu kideko agintaritzaz nazional eskudunak eta Batzordeak beren irizpideen arabera erabaki ahal izango dute neurri egokiei dagokienez, eta ez dute edukiko zertan egin jasotzen duten informazioaren jarraipenik.

3. Baldin eta, artikulua honen 1. apartatuaren arabera jasotako informazioan oinarrituta, 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen estatu kideko agintaritzaz nazional eskudunak erabakitzen badu balitekeela enpresa batek erregelamendu hau ez



existir un problema de incumplimiento del presente Reglamento, transmitirá dicha información a la Comisión.

Artículo 28

Función de comprobación del cumplimiento

1. Los guardianes de acceso establecerán una función de comprobación del cumplimiento que sea independiente de sus funciones operativas y esté integrada por uno o varios agentes de cumplimiento, entre los que se encontrará el responsable de la función de comprobación del cumplimiento.

2. El guardián de acceso se asegurará de que la función de comprobación del cumplimiento que se contempla en el apartado 1 cuente con la autoridad, la dimensión y los recursos suficientes, así como con acceso al órgano de dirección del guardián de acceso para controlar el cumplimiento del presente Reglamento por parte del guardián de acceso.

3. El órgano de dirección del guardián de acceso se asegurará de que los agentes de verificación designados con arreglo al apartado 1 posean las cualificaciones profesionales, los conocimientos, la experiencia y la capacidad necesarios para desempeñar las funciones que se contemplan en el apartado 5.

El órgano de dirección del guardián de acceso velará también por que el citado responsable de la función de comprobación del cumplimiento sea un alto directivo independiente con responsabilidad específica por lo que respecta a dicha función de comprobación.

betetzea, informazio hori helaraziko dio Batzordeari.

28. artikulua

Erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioa

1. Sarbide-zaindarien erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioa ezarri beharko dute, beren funtzio operatiboekin lotuta egongo ez dena; bertan egiaztapen-agente bat ariko da gutxienez eta agenteetako bat betetze-maila egiaztatzeko funtzioaren arduraduna izango da.

2. Sarbide-zaindarien bermatu beharko dute 1. apartatuan aipatzen den erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioaren agintea, dimentsioa eta baliabideak behar bezalakoak direla eta hark zuzendaritza-organoarekin jardun dezakeela, sarbide-zaindarien erregelamendu hau betetzen duen ala ez kontrolatzeko.

3. Sarbide-zaindarien zuzendaritza-organoek bermatu beharko dute 1. apartatuaren arabera izendatutako egiaztapen-agentek 5. apartatuan azaltzen diren egitekoak betetzeko behar diren lanbide-kualifikazioak, ezagutzak, esperientzia eta gaitasuna dituztela.

Halaber, sarbide-zaindarien zuzendaritza-organoek bermatu beharko dute erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioaren arduraduna goi-zuzendari independente bat izatea, egiaztapen-funtzio horri dagokionez ardura zehatza daukana.



4. El responsable de la función de verificación del cumplimiento informará directamente al órgano de dirección del guardián de acceso y podrá comunicarle sus preocupaciones y advertencias cuando exista un riesgo de incumplimiento del presente Reglamento, sin perjuicio de las responsabilidades del órgano de dirección en sus funciones de supervisión y gestión.

El responsable de la función de comprobación del cumplimiento no será sustituido sin la aprobación previa del órgano de dirección del guardián de acceso.

5. Los agentes de cumplimiento que designe el guardián de acceso de conformidad con el apartado 1 tendrán los siguientes cometidos:

- a) organizar, supervisar y controlar las medidas y las actividades de los guardianes de acceso encaminadas a garantizar el cumplimiento del presente Reglamento;
- b) informar y asesorar a la dirección y los empleados del guardián de acceso respecto al cumplimiento del presente Reglamento;
- c) en su caso, controlar el cumplimiento de los compromisos que se hayan hecho vinculantes con arreglo al artículo 25, sin perjuicio de la capacidad de la Comisión para nombrar expertos externos independientes de conformidad con el artículo 26, apartado 2;
- d) cooperar con la Comisión a los efectos del presente Reglamento.

6. Los guardianes de acceso comunicarán a la Comisión el nombre y los datos de contacto del responsable de la función de comprobación del cumplimiento.

4. Erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioaren arduradunak sarbide-zaindarien zuzendaritza-organoei emango die informazioa zuzenean, eta bere kezka eta ohartarazpenak jakinarazi ahal izango dizkie erregelamendu hau ez betetzeko arriskua dagoenean. Nolanahi ere, zuzendaritza-organoei gainbegiratzeko eta kudeatzeko ardurak edukiko dituzte.

Erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioaren arduraduna ezin izango da ordeztu, aurretik sarbide-zaindariaren zuzendaritza-organoa onartu ezik.

5. Sarbide-zaindarien 1. apartatuaren arabera izendatzen dituzten egiaztapen-agenteei honako egiteko hauek edukiko dituzte:

- a) sarbide-zaindarien erregelamendu hau betearazteko ezartzen dituen neurriak eta jarduerak antolatzea, gainbegiratzeko eta kontrolatzea;
- b) sarbide-zaindariaren zuzendaritzari eta langileei erregelamendu hau betetzeari buruzko informazioa eta aholkuak ematea;
- c) behar denean, 25. artikulua arabera lotesle bihurtutako konpromisoak betetzen diren kontrolatzea (nolanahi ere, Batzordeak kanpoko aditu independenteak izendatu ahal izango ditu 26.2 artikuluari jarraikiz);
- d) Batzordearekin lankidetzan aritzea erregelamendu honen ondorioetarako.

6. Sarbide-zaindarien erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioaren arduradunaren izena eta harremanetarako datuak helaraziko dizkiote Batzordeari.



7. El órgano de dirección del guardián de acceso definirá y supervisará la aplicación de los mecanismos de gobernanza del guardián de acceso que garanticen la independencia de la función de comprobación del cumplimiento, y responderá de la aplicación de tales mecanismos, incluido el reparto de responsabilidades en la organización del guardián de acceso y la prevención de conflictos de intereses.

8. El órgano de dirección aprobará y revisará periódicamente, al menos una vez al año, las estrategias y políticas encaminadas a asumir, gestionar y controlar el cumplimiento del presente Reglamento.

9. El órgano de dirección dedicará tiempo suficiente a la gestión y control del cumplimiento del presente Reglamento. Participará activamente en las decisiones relativas a la gestión y la ejecución del presente Reglamento y velará por que se les asignen a dichas tareas los recursos adecuados.

Artículo 29

Incumplimiento

1. La Comisión adoptará un acto de ejecución en el que se recojan las conclusiones a las que llegue en materia de incumplimiento (en lo sucesivo, «decisión de incumplimiento») cuando constate que un guardián de acceso no cumple una o varias de las siguientes condiciones:

a) cualquiera de las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6 o 7;

7. Sarbide-zaindari bakoitzaren zuzendaritza-organoak sarbide-zaindariak erregelamendua betetzen dela egiaztatzeko funtzioaren independentzia bermatzeko ezartzen dituen gobernantza-mekanismoen aplikazioa zehaztu eta gainbegiratu beharko du, eta horien aplikazioaz arduratu beharko da. Egiteko horren barruan sarbide-zaindariaren antolamenduko ardurak banatuko ditu eta interes-gatazkak saihestuko ditu.

8. Sarbide-zaindarien zuzendaritza-organoek aldian-aldian (gutxienez urtean behin) onartu eta berrikusi beharko dituzte beharrezkoak diren estrategiak eta politikak, erregelamendu hau betetzen dela bere gain hartzeko eta betetze hori kudeatzeko eta kontrolatzeko.

9. Zuzendaritza-organoek denbora nahikoa eman beharko dute erregelamendu hau betetzeko lanak kudeatzen eta kontrolatzen. Erregelamendu hau kudeatzeko eta betearazteko erabakietan modu aktiboan jardungo dute eta zeregin horietarako behar diren baliabideak esleitzea bermatuko dute.

29. artikulua

Ez-betetzea

1. Batzordeak egiaztatzen badu sarbide-zaindari batek ez duela betetzen baldintza hauetako bat, betearazpen-egintza bat emango du horren berri adierazteko (aurrerantzean, «ez betetzeari buruzko erabakia»):

a) 5., 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren betebeharrak:



b) las medidas que la Comisión especifique en una decisión adoptada con arreglo al artículo 8, apartado 2;

c) las medidas correctoras impuestas con arreglo al artículo 18, apartado 1;

d) las medidas cautelares ordenadas con arreglo al artículo 24, o

e) los compromisos que se hayan hecho jurídicamente vinculantes con arreglo al artículo 25.

Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento consultivo a que se refiere el artículo 50, apartado 2.

2. La Comisión procurará adoptar su decisión de incumplimiento en un plazo de doce meses a partir del inicio del procedimiento con arreglo al artículo 20.

3. Antes de adoptar la decisión de incumplimiento, la Comisión comunicará sus conclusiones preliminares al guardián de acceso de que se trate. En dichas conclusiones preliminares, la Comisión explicará las medidas que esté considerando adoptar o que considere que el guardián de acceso debe adoptar para atender de forma efectiva a las conclusiones preliminares.

4. La Comisión podrá consultar a terceros cuando se proponga adoptar una decisión de incumplimiento.

5. En la decisión de incumplimiento, la Comisión ordenará al guardián de acceso que cese el incumplimiento dentro de un plazo apropiado y que dé explicaciones sobre la forma en que tiene previsto cumplir dicha decisión.

b) 8.2 artikuluan ezartzen denaren arabera hartutako erabaki batean Batzordeak zehazten dituen neurriak;

c) 18.1 artikuluari jarraikiz ezartzen diren neurri zuzentzaileak;

d) 24. artikuluaen arabera agindutako kautelazko neurriak, edo

e) 25. artikuluaen arabera juridikoki lotesle bihurtutako konpromisoak.

Betearazpen-egintza horiek 50.2 artikuluan aipatzen den aholku-prozedurari jarraikiz emango dira.

2. Batzordeak ahaleginak egin beharko ditu ez betetzeari buruzko erabakia prozedura hasten denetik hilabete igaro baino lehen hartzen, 20. artikuluaen arabera.

3. Ez-betetzeari buruzko erabakia hartu aurretik, Batzordeak bere atariko ondorioak jakinaraziko dizkio sarbide-zaindariari. Atariko ondorioetan Batzordeak azaldu beharko du zer neurri hartuko dituen edo zer neurri uste duen hartu behar dituela sarbide-zaindaria atariko ondorioei ongi erantzuteko.

4. Batzordeak hirugarrenei kontsulta egin ahal izango die ez-betetzeari buruzko erabakia hartzeko asmoa daukanean.

5. Ez-betetzeari buruzko erabakian, Batzordeak sarbide-zaindariari aginduko dio bertan behera uzteko ez-betetzea epealdi egoki baten barruan, eta azaldu dezala zer egingo duen erabakia betetzeko.



6. El guardián de acceso facilitará a la Comisión la descripción de las medidas que haya adoptado para garantizar el cumplimiento de la decisión de incumplimiento.

7. Cuando la Comisión decida no adoptar una decisión de incumplimiento, pondrá fin al procedimiento mediante una decisión.

Artículo 30

Multas sancionadoras

1. En la decisión de incumplimiento, la Comisión podrá imponer a un guardián de acceso multas sancionadoras que no excedan del 10 % de su volumen de negocios total a nivel mundial en el ejercicio anterior cuando haya constatado que el guardián de acceso incumple, de forma intencionada o por negligencia:

- a) cualquiera de las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6 y 7;
- b) las medidas especificadas por la Comisión en una decisión adoptada con arreglo al artículo 8, apartado 2;
- c) las medidas correctoras impuestas con arreglo al artículo 18, apartado 1;
- d) las medidas cautelares ordenadas con arreglo al artículo 24, o
- e) los compromisos que se hayan hecho jurídicamente vinculantes con arreglo al artículo 25.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado 1 del presente artículo, en la decisión de incumplimiento, la Comisión podrá imponer a un guardián de acceso multas sancionadoras de hasta el 20 % de su volumen de negocios total a nivel mundial en el ejercicio anterior

6. Sarbide-zaindariak ez-betetzeari buruzko erabakia betetzeko hartu dituen neurrien berri eman beharko dio Batzordeari.

7. Batzordeak erabakitzen badu ez-betetzeari buruzko erabakia ez hartzea, erabaki baten bidez emango dio amaiera prozedurari.

30. artikulua

Zehapen-isunak

1. Ez-betetzeari buruzko erabakian, Batzordeak zehapen-isuna ezarri ahal izango dio sarbide-zaindariari, gehienez ere aurreko ekitaldian mundu osoan egindako negozioen bolumenaren % 10ekoa, baldin eta egiaztatzen badu sarbide-zaindariak hauetako bat nahita edo zabarkeriaz urratzen duela:

- a) 5., 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren betebeharrak;
- b) 8.2 artikuluan ezartzen denaren arabera hartutako erabaki batean Batzordeak zehazten dituen neurriak;
- c) 18.1 artikuluari jarraikiz ezartzen diren neurri zuzentzaileak;
- d) 24. artikuluen arabera agindutako kautelazko neurriak, edo
- e) 25. artikuluen arabera juridikoki lotesle bihurtutako konpromisoak.

2. Artikulu honen 1. apartatuan xedatzen dena gorabehera, ez betetzeari buruzko erabakian Batzordeak zehapen-isuna ezarri ahal izango dio sarbide-zaindariari, gehienez ere aurreko ekitaldian mundu osoan egindako negozioen bolumenaren % 20koa,



cuando haya constatado en una decisión de incumplimiento que un guardián de acceso ha cometido la misma infracción de una obligación establecida en los artículo 5, 6 o 7 en relación con el mismo servicio básico de plataforma que ya se hubiera constatado en una decisión de incumplimiento adoptada durante los ocho años anteriores, o una infracción similar.

3. La Comisión podrá adoptar una decisión en la que imponga a las empresas, incluidos en su caso los guardianes de acceso, y a las asociaciones de empresas multas sancionadoras que no excedan del 1 % de su volumen de negocios total a nivel mundial en el ejercicio anterior cuando, de forma intencionada o por negligencia:

- a) no proporcionen dentro del plazo la información necesaria para comprobar su designación como guardianes de acceso con arreglo al artículo 3 o proporcionen información incorrecta, incompleta o engañosa;
- b) no cumplan la obligación de notificar a la Comisión con arreglo al artículo 3, apartado 3;
- c) no notifiquen la información requerida con arreglo artículo 14 o la información que proporcionen con arreglo a dicho artículo sea incorrecta, incompleta o engañosa;
- d) no presenten la descripción requerida con arreglo al artículo 15 o la información que proporcionen sea incorrecta, incompleta o engañosa;
- e) no faciliten el acceso a las bases de datos, los algoritmos o a la información sobre

baldin eta egiaztatzen badu sarbide-zaindariak 5., 6. eta 7. artikuluetan ezarritako betebeharretako bat ez duela bete aurreko zortzi urteetan hartutako ez-betetzeari buruzko erabaki batean egiaztatutako oinarritzko plataforma-zerbitzu berari dagokionez, modu berean edo antzeko batean.

3. Batzordeak erabaki ahal izango du zehapen-isuna ezartzea enpresari (are sarbide-zaindariei eta enpresa-elkarteei ere), gehienez ere aurreko ekitaldian munduan egindako negozioen bolumenaren % 1ekoa, baldin eta nahita edo zabarkeriaz:

- a) ez badu epealdiaren barruan ematen 3. artikuluan arabera sarbide-zaindari izendatu behar den ala ez erabakitzeko behar den informazioa edo ematen duen informazioa oker badago, osorik ez badago edo engainagarria bada;
- b) ez badu betetzen Batzordeari jakinarazi beharra, 3.3 artikuluan ezartzen den bezala;
- c) ez badu ematen 14. artikuluan eskatzen den informazioa edo ematen duen informazioa oker badago, osorik ez badago edo engainagarria bada;
- d) ez badu aurkezten 15. artikuluan eskatzen den deskribapena edo ematen duen informazioa oker badago, osorik ez badago edo engainagarria bada;
- e) ez baditu eskura jartzen datu-baseak, algoritmoak edo probei buruzko



las pruebas en respuesta a una solicitud con arreglo al artículo 21, apartado 3;

f) no proporcionen dentro del plazo fijado con arreglo al artículo 21, apartado 3, la información solicitada o proporcionen información o explicaciones incorrectas, incompletas o engañosas solicitadas con arreglo a los artículos 21 o las hayan proporcionado en una entrevista con arreglo al artículo 22;

g) no rectifiquen, dentro de un plazo establecido por la Comisión, la información incorrecta, incompleta o engañosa facilitada por un representante o un miembro del personal, o no proporcionen o se nieguen a proporcionar información completa sobre hechos relativos al objeto y finalidad de una inspección con arreglo al artículo 23;

h) se nieguen a someterse a una inspección con arreglo al artículo 23;

i) no cumplan las obligaciones impuestas por la Comisión con arreglo al artículo 26;

j) no establezcan la función de comprobación del cumplimiento con arreglo al artículo 28, o

k) no cumplan las condiciones de acceso al expediente de la Comisión con arreglo al artículo 34, apartado 4.

4. Al fijar el importe de una multa, la Comisión tendrá en cuenta la gravedad, la duración, la reiteración y, en el caso de las multas sancionadoras impuestas con arreglo al apartado 3, la demora causada al procedimiento.

informazioak, 21.3 artikuluaaren arabera eskaera jaso ondoren;

f) ez badu epealdiaren barrua ematen 21.3 artikuluaaren arabera eskatutako informazioa edo 21. artikuluari jarraikiz egindako eskaerari erantzunik emandako informazioa edo azalpena, edo 22. artikuluaaren arabera egindako elkarrizketa batean emandakoa oker badago, osorik ez badago edo engainagarria bada;

g) ez badu zuzentzen Batzordeak finkatutako epealdiaren barruan ordezkari edo langile batek emandako informazioa (oker dagoena, osorik ez dagoena edo engainagarria dena), edo ez badu ematen edo ez badu eman nahi, 23. artikuluaaren arabera egindako ikuskapenaren xedearekin eta helburuarekin lotutako gertaerei buruzko informazio osoa;

h) ez badu onartzen 23. artikuluaaren arabera ikuskapena egitea;

i) ez baditu betetzen Batzordeak 26. artikuluaaren arabera ezarritako betebeharrak;

j) ez badu ezartzen Erregelamendua betetzen den egiaztatzeko funtzioa, 28. artikuluan arautzen dena, edo

k) ez baditu betetzen Batzordearen espediente eskuratzeko baldintzak, 34.4 artikuluan ezartzen direnak;

4. Isun baten zenbatekoa finkatzean Batzordeak kontuan hartuko ditu gertatutakoaren larritasuna eta iraupena, batean baino gehiagotan gertatu den eta, 3. apartatuaren arabera zehapen-isunen kasuan, prozedurari eragindako atzerapena.



5. Cuando se imponga una multa a una asociación de empresas teniendo en cuenta el volumen de negocios de sus miembros a nivel mundial y dicha asociación no sea solvente, esta estará obligada a pedir contribuciones a sus miembros para cubrir el importe de la multa.

Cuando no se hayan hecho esas contribuciones a la asociación de empresas en un plazo fijado por la Comisión, esta podrá exigir el pago de la multa directamente a cualquiera de las empresas cuyos representantes hayan sido miembros de los órganos de gobierno correspondientes de dicha asociación.

Después de haber exigido el pago de conformidad con el párrafo segundo, la Comisión podrá exigir el pago del saldo a cualquiera de los miembros de la asociación de empresas, cuando sea necesario para garantizar el pago íntegro de la multa.

No obstante, la Comisión no exigirá el pago con arreglo a los párrafos segundo o tercero a las empresas que demuestren que no han aplicado la decisión de la asociación de empresas que infringía el presente Reglamento, y que bien no tenían conocimiento de su existencia, o bien se habían distanciado activamente de ella antes de que la Comisión incoase el procedimiento con arreglo al artículo 20.

La responsabilidad financiera de cada empresa en cuanto al pago de la multa no excederá del 20 % de su volumen de negocios total a nivel mundial en el ejercicio anterior.

5. Enpresa-elkarte bati isuna ezartzen zaionean, kideek mundu osoan egindako negozioen bolumenaren arabera eta elkarteak ez badauka isuna ordaintzeko kaudimenik, kideei eskatu beharko die isuna ordaintzen laguntzeko ekarpenen bidez.

Kideek ez badiote ekarpenik egiten enpresa-elkarteari Batzordeak ezarritako epealdiaren barruan, horrek isuna ordaintzeko eskatu ahal izango die elkartearen gobernu-organoetan ordezkariaren bat eduki duten enpresa guztiei.

Bigarren paragrafoaren arabera ordaintzeko eskatu ondoren, Batzordeak enpresa-elkarteko zeinahi kideri eskatu ahal izango dio isuna osorik kitatzeko falta den saldoa ordaintzeko.

Dena den, Batzordeak ez die eskatuko isuna bigarren edo hirugarren paragrafoan ezartzen denaren arabera ordaintzeko erregelamendu hau urratzen duen enpresa-elkartearen erabakia ez dutela aplikatu frogatzen duten enpresei, Batzordeak prozedura 20. artikuluaaren arabera hasi aurretik haren berri jakin ez dutelako edo erabaki horretatik aktiboki aldendu direlako.

Enpresa bakoitzak isuna ordaintzeko edukiko duen finantza-erantzukizuna ezin da izan aurreko ekitaldian mundu osoan egindako negozioen bolumenaren % 20 baino gehiago.

Artículo 31

31. artikulua



Multas coercitivas

1. La Comisión podrá adoptar una decisión por la que se imponga a las empresas, incluidos en su caso los guardianes de acceso, y a las asociaciones de empresas multas coercitivas diarias que no excedan del 5 % del promedio diario del volumen de negocios a nivel mundial en el ejercicio anterior, calculado a partir de la fecha fijada por esa decisión, para obligarlas a:

- a) cumplir las medidas que especifique la Comisión sobre la base de una decisión adoptada en virtud del artículo 8, apartado 2;
- b) cumplir la decisión adoptada con arreglo al artículo 18, apartado 1;
- c) proporcionar información correcta y completa en el plazo requerido por una solicitud de información realizada mediante una decisión adoptada con arreglo al artículo 21;
- d) garantizar el acceso a las bases de datos, los algoritmos e información sobre las pruebas en respuesta a una solicitud hecha de conformidad con el artículo 21, apartado 3, y proporcionar las explicaciones sobre los mismos que se soliciten mediante una decisión adoptada con arreglo al artículo 21;
- e) someterse a una inspección ordenada mediante una decisión adoptada con arreglo al artículo 23;
- f) cumplir una decisión que ordene medidas cautelares adoptada con arreglo al artículo 24;
- g) cumplir los compromisos que se hayan hecho jurídicamente vinculantes mediante una decisión adoptada con arreglo al artículo 25, apartado 1;

Hertsatzeko isunak

1. Batzordeak erabaki ahal izango du hertsatzeko isuna ezartzea enpresei (are sarbide-zaindariei eta enpresa-elkarteei ere), hain zuzen ere aurreko ekitaldian munduan batez beste egunean egindako negozioen bolumenaren % 5ekoa, erabakian finkatzen den egunetik aurrera zenbatuta, honako hauek egitera behartzeko:

- a) Batzordeak 8.2 artikulua arabera hartutako erabaki batean oinarrituta zehazten dituen neurriak bete;
- b) 18.1 artikuluekin bat etorriz hartutako erabakia bete;
- c) 21. artikulua arabera hartutako erabaki baten bidez eskatutako informazioa, osoa eta zehatza, ezarritako epealdiaren barruan eman;
- d) 21.3 artikulua arabera egindako eskaera jaso ondoren, datu-baseak, algoritmoak edo probei buruzko informazioak eskura jarri, eta 21. artikulua arabera hartutako erabaki baten bidez eskatutako azalpenak eman;
- e) 23. artikulua arabera hartutako erabaki baten bidez agindutako ikuskapena onartu;
- f) 24. artikulua arabera ezarritako kautelazko neurriak agintzen dituen erabakia bete;
- g) 25.1 artikulua arabera hartutako erabaki baten bidez juridikoki lotesle bihurtutako konpromisoak bete;



h) cumplir una decisión adoptada con arreglo al artículo 29, apartado 1.

2. Cuando las empresas, o asociaciones de empresas, hayan cumplido la obligación que pretendía hacer cumplir la multa coercitiva, la Comisión podrá adoptar un acto de ejecución en el que fije el importe definitivo de la multa coercitiva en una cifra inferior a la que resultaría de la decisión original. Dicho acto de ejecución se adoptará de conformidad con el procedimiento consultivo a que se refiere el artículo 50, apartado 2.

Artículo 32

Plazos de prescripción para la imposición de sanciones

1. Las competencias conferidas a la Comisión por los artículos 30 y 31 estarán sujetas a un plazo de prescripción de cinco años.
2. El plazo comenzará a contar a partir del día en que se cometa la infracción. No obstante, en el caso de infracciones continuadas o reiteradas, el plazo comenzará a contar el día en que cese la infracción.
3. Toda medida adoptada por la Comisión a efectos de una investigación de mercado o un procedimiento relativo a una infracción interrumpirá el plazo de prescripción para la imposición de multas sancionadoras o multas coercitivas. El plazo de prescripción se interrumpirá con efectos a partir de la fecha en que la acción se notifique al menos a una empresa o asociación de empresas que haya participado en la infracción. Entre las acciones que interrumpen el transcurso del plazo se incluirán, en particular, las siguientes:

h) 29.1 artikuluaaren arabera hartutako erabakia bete.

2. Enpresak edo enpresa-elkarteak hertsapen-isunaren bidez betearazi nahi izan dena betetzen badu, Batzordeak betearazpen-egintza baten bidez hasierako erabakiaren ondoriozko zenbatekoa baino gutxiagoko hertsapen-isuna ezarri ahal izango du. Betearazpen-egintza hori 50.2 artikuluan aipatzen den aholku-prozedurari jarraikiz emango da.

32. artikulua

Zehapenak ezartzeko preskripzio-aldia

1. Batzordeari 30. eta 31. artikuluetan emandako eskumenek bost urteren buruan preskribatuko dute.
2. Aldia arau-haustea gertatzen den egunean hasiko da zenbatzen. Aldiz, arau-haustea jarraian edo behin eta berriz gertatzen bada, arau-hauslea amaitzen den egunetik hasiko da zenbatzen.
3. Batzordeak merkatu-ikerketa batez edo arau-hauste baten prozedura batez ematen dituen egintza guztiek zehapen-isunak edo hertsapen-isunak ezartzeko preskripzio-aldiaren zenbaketa etengo dute. Preskripzio-aldiaren etendurak egintza gutxienez arau-haustean parte hartu duen enpresa edo enpresa-elkarte bati jakinarazten zaionetik aurrera sortuko ditu ondorioak. Aldiaren zenbaketa etengo duten egintzetako batzuk dira:



a) las solicitudes de información de la Comisión;

b) las autorizaciones escritas para realizar inspecciones expedidas por la Comisión a sus funcionarios;

c) la incoación de un procedimiento por parte de la Comisión con arreglo al artículo 20.

4. Tras cada interrupción, el plazo comenzará a contarse desde el principio. No obstante, el plazo de prescripción expirará a más tardar el día en que haya transcurrido un plazo igual al doble del plazo de prescripción sin que la Comisión haya impuesto una multa o una multa coercitiva. Ese plazo se prorrogará por el tiempo que se suspenda el plazo de prescripción con arreglo al apartado 5.

5. El plazo de prescripción para la imposición de multas sancionadoras o multas coercitivas se suspenderá mientras la decisión de la Comisión sea objeto de un procedimiento pendiente ante el Tribunal de Justicia.

Artículo 33

Plazos de prescripción para la ejecución de sanciones

1. Las competencias de la Comisión para hacer cumplir las decisiones adoptadas con arreglo a los artículos 30 y 31 estarán sujetas a un plazo de prescripción de cinco años.

2. El plazo comenzará a contar a partir del día en que la decisión sea definitiva.

3. El plazo de prescripción para la ejecución de las sanciones se interrumpirá:

a) por la notificación de una decisión por la que se modifique el importe inicial de

a) Batzordearen informazio-eskaerak;

b) Batzordeak bere funtzionarioei ikuskapenak egiteko emandako baimen idatziak;

c) Batzordeak prozedura bat hastea 20. artikuluaaren arabera.

4. Etenaldi bakoitzaren ondoren preskripzio-aldia hasieratik hasiko da zenbatzen. Hala ere, preskripzio-aldia amaituko da, beranduenez ere, haren iraunaldia halako bi igarotakoan, Batzordeak inolako isunik ezarri gabe. Preskripzio-aldiari 5. apartatuaren arabera etenaldia gehituko zaio.

5. Zehapen-isuna edo hertsatzeko isuna ezartzeko preskripzio-aldia eten egingo da Batzordearen erabakia Justizia Auzitegian ebatzi gabe dagoen bitartean.

33. artikulua

Zehapenak betearazteko preskripzio-aldiak

1. Batzordeak 30. eta 31. artikuluen arabera hartutako erabakiek betearazteko dauzkan eskumenak bost urteren buruan preskribatuko dute.

2. Aldia erabakia behin betiko bihurtzen den egunean hasiko da zenbatzen.

3. Zehapenak betearazteko preskripzio-aldia kasu hauetan etengo da:

a) isunaren edo hertsapen-isunaren hasierako zenbatekoa aldatzen duen edo



la multa o de la multa coercitiva o por la que se deniegue una solicitud de modificación, o

b) por cualquier acto de la Comisión o de un Estado miembro que actúe a instancia de la Comisión que esté destinado a la recaudación por vía ejecutiva de la multa o de la multa coercitiva.

4. Tras cada interrupción, el plazo comenzará a contarse desde el principio.

5. El plazo de prescripción para la ejecución de sanciones quedará suspendido mientras:

a) dure el plazo concedido para efectuar el pago, o

b) dure la suspensión de la recaudación por vía ejecutiva en virtud de una resolución del Tribunal de Justicia o de una resolución de un órgano jurisdiccional nacional.

Artículo 34

Derecho a ser oído y de acceso al expediente

1. Antes de adoptar una decisión con arreglo al artículo 8, el artículo 9, apartado 1, el artículo 10, apartado 1, los artículos 17, 18, 24, 25, 29 y 30 y el artículo 31, apartado 2, la Comisión dará al guardián de acceso o a la empresa o asociación de empresas de que se trate la oportunidad de ser oído con respecto a lo siguiente:

a) las conclusiones preliminares de la Comisión, incluido cualquier asunto respecto del cual la Comisión haya formulado objeciones, y

b) las medidas que la Comisión se proponga adoptar en vista de las conclusiones preliminares con arreglo a la letra a) del presente apartado.

aldatzeko eskaera ukatzen duen erabakia jakinarazten denean, edo

b) Batzordeak edo hark eskatuta jarduten duen Batasuneko estatu batek zehapen-isuna edo hertsapen-isuna bide exekutibotik biltzeko egintza bat ematen duenean.

4. Etenaldi bakoitzaren ondoren preskripzio-aldia hasieratik hasiko da zenbatzen.

5. Zehapenak betearazteko preskripzio-aldia etenda geratuko da:

a) ordainketa egiteko aldian, edo

b) Justizia Auzitegiaren edo organo jurisdikzional nazional baten ebazpen baten ondorioz bide exekutibotik kobratzeko aukera etenda dagoen bitartean.

34. artikulua

Entzuna izateko eskubidea eta espedientearen eskuratzeko eskubidea

1. 8. artikulua, 9.1 artikulua, 10.1 artikulua, 17., 18., 24., 25., 29. eta 30. artikuluen eta 31.2 artikulua arabera erabakia hartu aurretik, Batzordeak sarbide-zaindariari edo kasuan kasuko enpresari edo enpresa-elkarteari honako gai hauei buruz hitz egiteko aukera emango dio:

a) Batzordearen atariko ondorioak, Batzordeak eragozpenak jarri dizkien gai guztiak barne, eta

b) apartatu honen a) letrako atariko ondorioak ikusita, Batzordeak proposatzen dituen neurriak.



2. Los guardianes de acceso, las empresas y las asociaciones de empresas de que se trate podrán presentar a la Comisión sus observaciones relativas a las conclusiones preliminares de la Comisión en un plazo que esta fijará en sus conclusiones preliminares y que no podrá ser inferior a catorce días.

3. La Comisión basará sus decisiones únicamente en las conclusiones preliminares, incluida cualquier cuestión sobre la que haya formulado alguna objeción, sobre las que los guardianes de acceso, las empresas y las asociaciones de empresas de que se trate hayan podido formular observaciones.

4. En todo procedimiento se respetarán plenamente los derechos de defensa del guardián de acceso, la empresa o asociación de empresas de que se trate. El guardián de acceso, la empresa o la asociación de empresas de que se trate tendrá derecho a acceder al expediente de la Comisión en las condiciones de revelación, sin perjuicio del interés legítimo de las empresas de proteger sus secretos comerciales. En caso de desacuerdo entre las partes, la Comisión podrá adoptar decisiones en las que se establezcan esas condiciones de revelación. El derecho de acceso al expediente de la Comisión no se hará extensivo a la información confidencial ni a los documentos internos de la Comisión o de las autoridades competentes de los Estados miembros. En particular, el derecho de acceso no se hará extensivo a los intercambios de correspondencia entre la Comisión y las autoridades competentes de los Estados miembros. Nada de lo dispuesto en el presente apartado impedirá que la Comisión revele y utilice la información necesaria para probar una infracción.

2. Sarbide-zaindarien, enpresek eta enpresa-elkarteek atariko ondorioei buruzko oharra aurkeztu ahal izango dizkiote Batzordeari; horretarako epealdia Batzordeak finkatuko du atariko ondorioetan, eta ezin izango da izan hamalau egunetik beherakoa.

3. Sarbide-zaindarien, enpresek eta enpresa-elkarteek oharra egin ahal izan dituzten atariko ondorioetan soilik oinarrituko ditu erabakiak Batzordeak, are eragozpenen bat jarri duen gaiei buruzkoak ere.

4. Prozedura guztietan erabat errespetatuko dira sarbide-zaindariaren, enpresaren edo enpresa-elkartearen defentsa-eskubideak. Sarbide-zaindaria, enpresak edo enpresa-elkarteak Batzordearen espedientea eskuratzeko eskubidea edukiko du, informazio-arauekin bat etorriz. Nolanahi ere, enpresen interes legitimoa izango da beren merkataritza-sekretuak babestea. Alderdiak ados jartzen ez badira, Batzordeak informazioa ematea arautu ahal izango du erabaki bidez. Batzordearen espedientea eskuratzeko eskubidearen barruan ez da sartuko Batzordearen edo Batasuneko estatuetako agintaritza eskudunen informazio konfidentziala eta barne-dokumentazioa eskuratzea. Hain zuzen ere, eskubide horren barruan ez da sartuko Batzordearen eta Batasuneko estatuetako agintaritza eskudunen arteko korrespondentzia. Apartatu honetan xedatzen dena gorabehera, Batzordeak arau-hausteak frogatzeko behar den informazioa eman eta erabili ahal izango du.



Artículo 35

Informes anuales

1. La Comisión presentará al Parlamento Europeo y al Consejo un informe anual sobre la aplicación del presente Reglamento y los progresos realizados en la consecución de sus objetivos.

2. El informe a que se refiere el apartado 1 incluirá:

- a) un resumen de las actividades de la Comisión, incluidas todas las medidas o decisiones adoptadas y las investigaciones de mercado en curso que estén relacionadas con el presente Reglamento;
- b) las conclusiones que se extraigan del control del cumplimiento por parte de los guardianes de acceso de sus obligaciones en virtud del presente Reglamento;
- c) una valoración de la descripción auditada que se contempla en el artículo 15;
- d) una sinopsis de la cooperación entre la Comisión y las autoridades nacionales en torno al presente Reglamento;
- e) una sinopsis de las actividades y tareas realizadas por el Grupo de Alto Nivel de Reguladores Digitales, que indique la manera en que deben aplicarse sus recomendaciones por cuanto se refiere a la ejecución del presente Reglamento.

3. La Comisión publicará el informe en su sitio web.

Artículo 36

Secreto profesional

35. artikulua

Urteko txostenak

1. Batzordeak erregelamendu honen aplikazioari eta haren helburuak lortzeko egindako aurrerapenei buruzko txostena aurkeztuko die urtero Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

2. 1. apartatuan aipatzen den txostenak osagai hauek edukiko ditu:

- a) Batzordearen jardueren laburpena, erregelamendu honekin lotuta hartu dituen neurri edo erabaki guztiak eta abian dauden merkatu-ikerketa guztiak barne;
- b) sarbide-zaindarien erregelamendu honen arabera dauzkaten betebeharrak betetzen dituzten kontrolatzeko lanen ondorioak;
- c) 15. artikuluan arautzen den deskribapen ikuskatuaren balorazioa;
- d) Batzordeak eta agintaritza nazionalak erregelamendu honi dagokionez lankidetzan egin duten lanaren laburpena;
- e) Arautzaile Digitalen Goi Mailako Taldeak egindako jardueren eta lanen laburpena, erregelamendu hau betetzeko eman dituen gomendioak nola aplikatu behar diren azaltzen duena.

3. Batzordeak bere webgunean argitaratuko du txostena.

36. artikulua

Lanbideko sekretua



1. La información recopilada con arreglo al presente Reglamento se utilizará a efectos del presente Reglamento.

2. La información recopilada con arreglo al artículo 14 se utilizará a los efectos del presente Reglamento, del Reglamento (CE) n.º 139/2004 y de las normas nacionales sobre concentraciones.

3. La información recopilada con arreglo al artículo 15 se utilizará a los efectos del presente Reglamento y del Reglamento (UE) 2016/679.

4. Sin perjuicio del intercambio y utilización de la información facilitada a efectos de su utilización con arreglo a los artículos 38, 39, 41 y 43, la Comisión, las autoridades competentes de los Estados miembros, sus funcionarios, agentes y demás personas que trabajen bajo la supervisión de dichas autoridades, así como cualquier persona física o jurídica, incluidos los auditores y expertos nombrados con arreglo al artículo 26, apartado 2, estarán obligados a no revelar la información que hayan recopilado o intercambiado en aplicación del presente Reglamento y que, por su naturaleza, esté amparada por el secreto profesional.

Artículo 37

Cooperación con las autoridades nacionales

1. La Comisión y los Estados miembros trabajarán en estrecha cooperación y coordinarán sus medidas de ejecución para garantizar una ejecución coherente, eficaz y complementaria de los instrumentos jurídicos disponibles aplicables a los guardianes de acceso en el sentido del presente Reglamento.

1. Erregelamendu honen arabera biltzen den informazioa beraren helburuetarako erabiliko da.

2. 14. artikuluari jarraikiz biltzen den informazioa erregelamendu honen, (EE) 139/2004 Erregelamenduaren eta kontzentrazioei buruzko arau nazionalen helburuetarako erabiliko da.

3. 15. artikuluari jarraikiz biltzen den informazioa erregelamendu honen eta (EB) 2016/679 Erregelamenduaren helburuetarako erabiliko da.

4. 38., 39., 41. eta 43. artikuluen arabera erabiltzeko emandako informazioa trukatu eta erabili ahal izango da. Hala ere, Batzordeak, Batasuneko estatuetako agintaritza eskudunek, haien funtzionarioek, agenteek eta haiek gainbegiratuta lan egiten duten gainerako pertsonak, bai eta pertsona fisiko eta juridiko guztiek ere (26.2 artikuluen arabera izendatutako auditoreak eta adituak barne), ezin izango dute zabaldu erregelamendu honen arabera biltzen edo eskuratzen duten informazioa, hain zuzen ere lanbideko sekretuaren babespean dagoena.

37. artikulua

Lankidetza agintaritza judizialekin

1. Batzordeak eta Batasuneko estatuek lankidetza estuan jardungo dute eta beren betearazpen-neurriak koordinatuko dituzte, sarbide-zaindariei. erregelamendu honen arabera aplikatzen zaizkien tresna juridiko baliagarriak koherentziarekin, eraginkortasunarekin eta modu osagarrian betearazteko.



2. En su caso, la Comisión podrá consultar a las autoridades nacionales acerca de cualquier asunto relacionado con la aplicación del presente Reglamento.

Artículo 38

Cooperación y coordinación con las autoridades nacionales competentes encargadas de hacer cumplir las normas en materia de competencia

1. La Comisión y las autoridades nacionales competentes de los Estados miembros encargadas de hacer cumplir las normas contempladas en el artículo 1, apartado 6, cooperarán y se informarán entre sí sobre sus respectivas medidas de ejecución a través de la Red Europea de Competencia (REC). Estarán facultadas para comunicarse entre sí cualquier información sobre cuestiones de hecho y de derecho, incluida información confidencial. Cuando la autoridad competente no sea miembro de la REC, la Comisión adoptará las disposiciones necesarias para la cooperación y el intercambio de información sobre asuntos relacionados con la ejecución del presente Reglamento y las normas contempladas en el artículo 1, apartado 6. La Comisión podrá establecer tales disposiciones en un acto de ejecución, tal como se contempla en el artículo 46, apartado 1, letra l).

2. Cuando la autoridad nacional competente de un Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, tenga la intención de iniciar una investigación sobre los guardianes de acceso sobre la base de la legislación nacional que se contempla en el artículo 1, apartado 6, informará por escrito a la Comisión de su primera medida formal de investigación, antes o inmediatamente

2. Behar denean, Batzordeak kontsulta egin ahal izango die agintaritza nazional ei, erregelamendu honen aplikazioarekin lotutako edozein gairi buruz.

38. artikulua

Lankidetzeta eta koordinazioa, lehiaren arloko arauak betearazteko ardura duten agintaritza nazional eskudunekin

1. Batzordeak eta 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duten Batasuneko estatu etako agintaritza nazional eskudunek lankidetzan jardungo dute eta elkarri emango diote beren betearazpen-neurriei buruzko informazioa Lehiaren Europako Sarearen (REC) bidez. Egitateei eta zuzenbideko gaiei buruzko informazio guztiak (isilpekoak barne) elkarri emateko ahalmena edukiko dute. Baldin eta agintaritza eskuduna ez bada RECeko kidea, Batzordeak erregelamendu hau eta 1.6 artikuluko arauak betearaztearekin lotutako gaiei buruzko lankidetzarako eta informazioa trukatzeko behar diren xedapenak emango ditu. Batzordeak betearazte-egintza bidez eman ahal izango ditu xedapen horiek, 46.1.l) artikuluan ezartzen den bezala.

2. Baldin eta 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen Batasuneko estatu bateko agintaritza nazional eskudunak sarbide-zaindariai buruzko ikerketa hasi nahi badu 1.6 artikuluan aipatzen diren legeria nazionalen oinarrituta, Batzordeari idatziz jakinaraziko dio bere lehen ikerketa-neurri formala, neurria abian ipini aurretik edo ipini eta berehala. Informazio hori 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duten



después del inicio de dicha medida. Esta información podrá ponerse también a disposición de las autoridades nacionales competentes de los demás Estados miembros encargadas de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6.

3. Cuando la autoridad nacional competente de un Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, tenga la intención de imponer obligaciones a los guardianes de acceso sobre la base de la legislación nacional que se contempla en el artículo 1, apartado 6, comunicará a la Comisión, en un plazo no superior a treinta días antes de su adopción, el proyecto de medidas, indicando los motivos de la medida. En el caso de las medidas cautelares, la autoridad nacional competente de un Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6, comunicará a la Comisión el proyecto de medidas previstas lo antes posible, y a más tardar inmediatamente después de la adopción de dichas medidas. Esta información podrá ponerse también a disposición de las autoridades nacionales competentes de los demás Estados miembros encargadas de hacer cumplir las normas que se contemplan en el artículo 1, apartado 6.

4. Los mecanismos de información previstos en los apartados 2 y 3 no se aplicarán a las decisiones previstas en virtud de las normas nacionales sobre concentraciones.

5. La información intercambiada con arreglo a los apartados 1 a 3 del presente artículo solo se intercambiará y utilizará a efectos de coordinar la ejecución del presente Reglamento y de las normas a que se refiere el artículo 1, apartado 6.

Batasuneko gainerako estatuetako agintaritza nazional eskudunen esku ere jarri ahal izango da.

3. Baldin eta 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen Batasuneko estatu bateko agintaritza nazional eskudunak sarbide-zaindariei betebeharrak ezarri nahi badizkie 1.6 artikuluan aipatzen diren legeria nazionalean oinarrituta, Batzordeari neurriaren proiektuaren berri emango dio, gehienez ere abian ipini baino hogeita hamar egun lehenago, eta neurria ezartzeko arrazoiak azalduko dizkio. Kautelazko neurrien kasuan, 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen Batasuneko estatuetako agintaritza nazional eskudunek ahalik eta lasterren jakinaraziko diote neurri-proiektua Batzordeari, beranduenez ere neurria ezarri eta berehala. Informazio hori 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duten Batasuneko gainerako estatuetako agintaritza nazional eskudunen esku ere jarri ahal izango da.

4. 2. eta 3. apartatueta arautzen diren informazio-mekanismoak ez zaizkie aplikatuko kontzentrazioei buruzko arauekin bat etorritik hartzen diren erabakiei.

5. Artikulu honen 1 - 3 bitarteko apartatueta informazioa erregelamendu honen eta 1.6 artikuluko arauen betearazpena koordinatzeko soilik eman eta erabiliko da.



6. La Comisión podrá pedir a las autoridades nacionales competentes de los Estados miembros encargadas de hacer cumplir las normas a que se refiere el artículo 1, apartado 6, que apoyen cualquiera de sus investigaciones de mercado con arreglo al presente Reglamento.

7. Cuando, en virtud del Derecho nacional, tenga la potestad y las competencias de investigación para ello, la autoridad nacional competente de un Estado miembro encargada de hacer cumplir las normas a que se refiere el artículo 1, apartado 6, podrá, por propia iniciativa, investigar casos de posible incumplimiento de los artículos 5, 6 y 7 del presente Reglamento en su territorio. Antes de adoptar la primera medida formal de investigación, dicha autoridad informará por escrito a la Comisión.

La incoación de un procedimiento por parte de la Comisión con arreglo al artículo 20 privará a las autoridades nacionales competentes de los Estados miembros encargadas de hacer cumplir las normas a que se refiere el artículo 1, apartado 6, de la potestad de llevar a cabo tal investigación, o pondrá término a dicha investigación si esta ya se halla en curso. Esas autoridades informarán a la Comisión de las conclusiones de dicha investigación con el fin de apoyar a la Comisión en su función de única responsable de hacer cumplir el presente Reglamento.

6. Batzordeak 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duten Batasuneko estatuetao agintaritza nazional eskudunei eskatu ahal izango die laguntzeko erregelamendu honen arabera egiten dituen merkatu-ikerketak guztietan.

7. Baldin eta 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duen Batasuneko estatu batego agintaritza nazional eskudunak zuzenbide nazionalaren indarrez ikerketarako ahala eta eskumenak badauzka, bere ekimenez ikertu ahal izango ditu ustez erregelamendu honen 5., 6. eta 7. artikuluetan ezartzen dena bere lurraldean betetzen ez den kasuak. Ikerketako lehen neurri formala hartu aurretik, agintaritza horrek idatziz jakinaraziko dio Batzordeari horren berri.

Batzordeak prozedura bat abiarazten badu 20. artikuluari jarraikiz, 1.6 artikuluko arauak betearazteko ardura duten Batasuneko estatuetao agintaritza nazional eskudunek ezin izango dute ikerketarik egin, eta hasitako ikerketak ezin izango dituzte amaitu. Agintaritza horiek ikerketen ondorioen berri emango diote Batzordeari, erregelamendu hau betearazteko ardura duen bakarra den aldetik, dagokion egitekoa burutzen laguntzeko.

Artículo 39

Cooperación con los órganos jurisdiccionales nacionales

39. artikulua

Lankidetza Batasuneko estatuetao jurisdikzio-organoekin



1. En los procedimientos para la aplicación del presente Reglamento, los órganos jurisdiccionales nacionales podrán pedir a la Comisión que les remita la información que obre en su poder o un dictamen sobre cuestiones relativas a la aplicación del presente Reglamento.

2. Los Estados miembros remitirán a la Comisión una copia de toda sentencia dictada por un órgano jurisdiccional nacional que se pronuncie sobre la aplicación del presente Reglamento. Dicha copia se remitirá sin dilación tras la notificación a las partes del texto íntegro de la sentencia.

3. Cuando la aplicación coherente del presente Reglamento así lo exija, la Comisión podrá dirigir de oficio observaciones escritas a los órganos jurisdiccionales nacionales. Con la autorización del correspondiente órgano jurisdiccional podrán presentar también observaciones verbales.

4. Solamente al objeto de elaborar sus observaciones, la Comisión podrá solicitar al órgano jurisdiccional nacional de que se trate que le transmita o le garantice la transmisión de toda la documentación necesaria para valorar el asunto.

5. Los órganos jurisdiccionales nacionales no adoptarán resoluciones que sean contrarias a una decisión adoptada por la Comisión en virtud del presente Reglamento. Evitarán asimismo adoptar resoluciones que puedan entrar en conflicto con una decisión prevista por la Comisión en un procedimiento que ya haya incoado con arreglo al presente Reglamento. A tal fin, corresponde a los órganos jurisdiccionales nacionales apreciar si procede suspender su procedimiento. Lo anterior se entiende sin perjuicio de la posibilidad de que los órganos

1. Erregelamendu hau aplikatzeko prozeduretan, Batasuneko estatuetako jurisdikzio-organoek Batzordeari eskatu ahal izango diote bidaltzeko erregelamendu honen aplikazioari buruzko informazioa edo horren inguruko gaiei buruzko irizpenak.

2. Batasuneko estatuek jurisdikzio-organo nazionalek erregelamendu honen aplikazioaz ematen dituzten epai guztien kopiak bidaliko dizkiote Batzordeari. Kopia epaiaren testu osoa alderdiei jakinarazi eta berehala bidaliko da.

3. Erregelamendu hau koherentziaz aplikatzeko beharrezkoa denean, Batzordeak ohar idatziak bidali ahal izango dizkie ofizioz jurisdikzio-organo nazionaliei. Jurisdikzio-organoak baimena emanaz gero, hitzezko oharrek ere aurkeztu ahal izango ditu.

4. Oharrak egiteko ez beste ezertarako, Batzordeak jurisdikzio-organo nazional bati eskatu ahal izango dio gai bat aztertzeko behar duen dokumentazio guztia bidaltzeko edo helarazteko.

5. Jurisdikzio-organo nazionalek ezin dute eman Batzordeak erregelamendu honen arabera hartutako erabaki baten kontra dagoen ebazpenik. Era berean, ezin dute eman erregelamendu honen arabera hasitako prozedura batean Batzordeak emandako erabaki batekin bat ez datorren ebazpenik. Horretarako, Batasuneko estatuetako jurisdikzio-organoek erabaki beharko dute prozedura eten behar den ala ez. Nolanahi ere, jurisdikzio-organo nazionalek judizio



jurisdiccionales nacionales planteen una petición de decisión prejudicial en virtud del artículo 267 del TFUE.

Artículo 40

El Grupo de Alto Nivel

1. La Comisión establecerá un Grupo de Alto Nivel sobre el Reglamento de Mercados Digitales (en lo sucesivo, «Grupo de Alto Nivel»).

2. El Grupo de Alto Nivel estará compuesto por las redes y los organismos europeos siguientes:

- a) Organismo de Reguladores Europeos de las Comunicaciones Electrónicas;
- b) Supervisor Europeo de Protección de Datos y Comité Europeo de Protección de Datos;
- c) Red Europea de Competencia;
- d) Red de cooperación en materia de protección de los consumidores, y
- e) Grupo de Entidades Reguladoras Europeas para los Servicios de Comunicación Audiovisual.

3. Las redes y los organismos europeos a que se refiere el apartado 2 tendrán cada uno un número igual de representantes en el Grupo de Alto Nivel. Los miembros del Grupo de Alto Nivel serán como máximo treinta.

4. La Comisión proporcionará servicios de secretaría al Grupo de Alto Nivel para facilitar su labor. El Grupo de Alto Nivel estará presidido por la Comisión, que participará en sus reuniones. El Grupo de Alto Nivel se reunirá a solicitud de la Comisión al menos una vez por año natural. La Comisión convocará también una reunión del grupo

aurreko erabakia eskatu ahal izango dute EBFTren 267. artikuluan oinarrituta.

40. artikulua

Goi Mailako Taldea

1. Batzordeak «Merkatu Digitalen Erregelamenduaren Goi Mailako Taldea» izeneko talde bat sortuko du (aurrerantzean, «Goi Mailako Taldea»).

2. Goi Mailako Taldean Europako sare eta organismo hauek ariko dira:

- a) Komunikazio Elektronikoen Europako Arautzaileen Erakundea;
- b) Datuak Babesteko Europako Ikuskatzailea eta Datuak Babesteko Europako Komitea;
- c) Lehiaren Europako Sarea;
- d) Kontsumitzaileen babeserako lankidetzaren sareak, eta
- e) Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuetarako Europako Entitate Arautzaileen Taldea.

3. 2. apartatuan aipatzen diren Europako sareak eta organismoak ordezkari kopuru bera edukiko dute Goi Mailako Taldean. Goi Mailako Taldean hogeita hamar kide ariko dira gehienez.

4. Batzordeak idazkaritza-zerbitzuak emango dizkio Goi Mailako Taldeari, lana errazteko. Goi Mailako Taldearen burua Batzordea izango da. Batzordeak Taldearen bileretan parte hartuko du. Goi Mailako Taldea gutxienez behin bilduko da urte natural bakoitzean, Batzordeak eskatuta. Halaber, Batzordeak Taldearen bilera deituko du



cuando así lo solicite la mayoría de sus miembros para tratar una cuestión concreta.

5. El Grupo de Alto Nivel podrá proporcionar a la Comisión asesoramiento y conocimientos especializados en los ámbitos que sean competencia de sus miembros, en particular:

- a) asesoramiento y recomendaciones a partir de sus conocimientos especializados que sean pertinentes para cualquier asunto de carácter general en relación con la aplicación o la ejecución del presente Reglamento, o
- b) asesoramiento y conocimientos especializados que promuevan un planteamiento normativo coherente entre los diferentes instrumentos normativos.

6. El Grupo de Alto Nivel podrá, en particular, determinar y examinar las interacciones actuales y potenciales entre el presente Reglamento y las normas sectoriales aplicadas por las autoridades nacionales que componen las redes y los organismos europeos a que se refiere el apartado 2, y presentar un informe anual a la Comisión que recoja dicho examen y deje constancia de las posibles dificultades inter-normativas. Dicho informe podrá ir acompañado de recomendaciones destinadas a la convergencia de sinergias y planteamientos interdisciplinares coherentes entre la aplicación del presente Reglamento y otras normas sectoriales. El informe se pondrá en conocimiento del Parlamento Europeo y del Consejo.

7. En el contexto de las investigaciones de mercado sobre nuevos servicios y nuevas prácticas, el Grupo de Alto Nivel podrá aportar conocimientos especializados a la Comisión sobre la necesidad de añadir

kideen gehiengoak gai jakin bat aztertzeko eskatzen duenean.

5. Goi Mailako Taldeak aholkularitza eta ezagutza espezializatuak eman ahal izango dizkio Batzordeari bere kideen eskumeneko eremuetan, hala nola:

- a) erregelamendu hau aplikatzearekin edo betearaztearekin lotutako edozein gai orokorri buruzko aholkuak eta gomendioak, beren jakintza espezializatuetatik abiatuta, edo
- b) zenbait arau-tresnaren bidez arau-planteamendu koherentea sustatzen duten aholkuak eta jakintza espezializatuak.

6. Goi Mailako Taldeak erregelamendu honen eta 2. apartatuan aipatzen diren Europako sare eta organismoetako agintaritza nazionalak aplikatzen dituzten arau sektorialen artean gaur egun dauden eta aurrerantzean izan daitezkeen elkarreraginak zehaztu eta aztertu ahal izango ditu, eta urtero azterketa horren berri ematen duen eta arauen arteko zailtasunak azaltzen dituen txostena aurkeztu ahal izango dio Batzordeari. Txosten horrekin batera erregelamendu honen eta beste arau sektorial batzuen aplikaziorako sinergia eta diziplinarteko planteamendu koherenteak bateratzeko gomendioak eman ahal izango ditu. Txosten hori Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraziko zaie.

7. Zerbitzu eta jardunbide berriei buruzko merkatu-ikerketei dagokienez, Goi Mailako Taldeak erregelamendu honi arauak gehitzeko, kentzeko edo aldatzeko beharrari buruzko iritziak eman ahal izango dizkio



normas al presente Reglamento o modificar o suprimir normas de este, a fin de garantizar que los mercados digitales de toda la Unión sean disputables y equitativos.

Artículo 41

Solicitud de investigación de mercado

1. Tres o más Estados miembros podrán solicitar a la Comisión la apertura de una investigación de mercado con arreglo al artículo 17 por considerar que existen motivos razonables para suponer que una empresa debe ser designada guardián de acceso.
2. Uno o varios Estados miembros podrán solicitar a la Comisión que inicie una investigación de mercado con arreglo al artículo 18 por considerar que existen motivos razonables para suponer que un guardián de acceso ha incumplido sistemáticamente una o varias de las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6 y 7, y ha mantenido, reforzado o ampliado su posición de guardián de acceso en relación con los requisitos previstos en el artículo 3, apartado 1.
3. Tres o más Estados miembros podrán solicitar a la Comisión que lleve a cabo una investigación de mercado con arreglo al artículo 19 por considerar que existen motivos razonables para suponer que:
 - a) deben añadirse a la lista de servicios básicos de plataforma establecida en el artículo 2, punto 2, uno o más servicios del sector digital, o
 - b) no se abordan de forma eficaz en el presente Reglamento una o varias prácticas que podrían limitar la disputabilidad de los

Batzordeari, Batasun osoko merkatu digitaletan lehia eta bidezktasuna bermatzeko.

41. artikulua

Merkatua ikertzeko eskaera

1. Batasuneko hiru estatuk edo gehiagok Batzordeari eskatu ahal izango diote merkatu-ikerketa bat irekitzeko 17. artikuluaaren arabera, haien ustez enpresa bat sarbide-zaindari izendatu behar dela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak badaude.
2. Batasuneko estatu batek edo batzuek Batzordeari eskatu ahal izango diote merkatu-ikerketa bat hasteko 18. artikuluari jarraikiz, haien ustez zentzuzko arrazoiak badaude pentsatzeko sarbide-zaindari batek sistematikoki urratu duela 5., 6. eta 7. artikuluetan ezarritako betebeharren bat eta sarbide-zaindariaren posizioa mantendu, indartu edo zabaltu duela 3.1 artikuluko baldintzei dagokienez.
3. Batasuneko hiru estatuk edo gehiagok Batzordeari eskatu ahal izango diote merkatu-ikerketa bat irekitzeko 19. artikuluaaren arabera, haien ustez zentzuzko arrazoiak badaude zera pentsatzeko:
 - a) 2.2 artikuluan ezarritako oinarrizko plataforma-zerbitzuen zerrendari sektore digitaleko zerbitzu bat edo gehiago gehitu behar zaizkiola, edo
 - b) erregelamendu honetan ez dela behar bezala arautzen oinarrizko plataforma-



servicios básicos de plataforma o no ser equitativos.

4. Los Estados miembros aportarán pruebas para respaldar sus solicitudes, con arreglo a los apartados 1, 2 y 3. En el caso de las solicitudes con arreglo al apartado 3, dichas pruebas podrán incluir información sobre ofertas introducidas recientemente de productos, servicios, software o prestaciones que susciten problemas de disputabilidad o de equidad, tanto si se aplican en el contexto de los servicios básicos de plataforma existentes como si se aplican en otro contexto.

5. En un plazo de cuatro meses a partir de la recepción de una solicitud con arreglo al presente artículo, la Comisión examinará si existen motivos razonables para la apertura de una investigación de mercado con arreglo a los apartados 1, 2 o 3. La Comisión publicará los resultados de su examen.

Artículo 42

Acciones de representación

La Directiva (UE) 2020/1828 se aplicará a las acciones de representación ejercitadas frente a actos de guardianes de acceso que infrinjan las disposiciones del presente Reglamento y perjudiquen o puedan perjudicar los intereses colectivos de los consumidores.

Artículo 43

Denuncia de infracciones y protección de los denunciantes

La Directiva (UE) 2019/1937 se aplicará a la denuncia de todas las infracciones del

zerbitzuen arteko lehia mugatu dezakeen edo ekitatiboa ez den jardunbideren bat.

4. Batasuneko estatuek frogak aurkeztuko dituzte 1., 2. eta 3. apartatuen arabera egiten dituzten eskaerak oinarritzeko. Merkatu-ikerketa 3. apartatuaren arabera eskatzen denean, frogen artean aurkeztu ahal izango dute dagoeneko badauden oinarritzko plataforma-zerbitzuen zein beste batzuen lehian edo ekitatean arazoak sortzen dituzten produktu, zerbitzu, software edo funtzionalitate sartu berrien eskaintzei buruzko informazioa.

5. Artikulu honen araberrako eskaera bat jaso ondoko lau hiletan, Batzordeak aztertuko du ea zentzuzko arrazoirik dagoen merkatu-ikerketa bat hasteko 1., 2. edo 3. apartatuen arabera. Batzordeak azterketaren emaitzak argitaratuko ditu.

42. artikulua

Ordezkaritza-ekintzak

(EB) 2020/1828 Zuzentaraua aplikatuko zaie erregelamendu honetako xedapenak hausten dituzten eta kontsumitzaileen interes kolektiboei kalte egiten dieten edo kalte egin diezaieketen sarbide-zaindarien ekintzen aurrean baliatutako ordezkari-tza-ekintzei.

43. artikulua

Arau-hausteen salaketa eta salatzaileen babesa

(EB) 2019/1937 Zuzentaraua aplikatuko da erregelamendu honen arau-haustek



presente Reglamento y a la protección de las personas que informen sobre tales infracciones.

salatzeko, bai eta arau-hauste horiek salatzen dituzten pertsonak babesteko ere.

CAPÍTULO VI

DISPOSICIONES FINALES

Artículo 44

Publicación de las decisiones

1. La Comisión publicará las decisiones que adopte con arreglo a los artículos 3 y 4, el artículo 8, apartado 2, los artículos 9, 10, 16 a 20 y 24, el artículo 25, apartado 1, y los artículos 29, 30 y 31. Dicha publicación mencionará los nombres de las partes y el contenido principal de la decisión, incluidas las sanciones impuestas.

2. En la publicación se deberá tener en cuenta el interés legítimo de los guardianes de acceso o de cualesquiera terceros en la protección de su información confidencial.

Artículo 45

Control del Tribunal de Justicia

De conformidad con el artículo 261 del TFUE, el Tribunal de Justicia tiene competencia jurisdiccional plena para revisar las decisiones por las que la Comisión ha impuesto multas sancionadoras o multas coercitivas. Puede anular, reducir o aumentar la multa o la multa coercitiva impuesta.

Artículo 46

Normas de desarrollo

VI. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

44. artikulua

Erabakiak argitaratzea

1. Batzordeak 3., 4., 8.2, 9., 10., 16 - 20, 24., 25.1, 29., 30. eta 31. artikuluen arabera hartzen dituen erabakiak argitaratuko ditu. Argitaratzen den testuan alderdien izenak agertuko dira eta erabakiaren eduki nagusia azalduko da, ezarritako zehapenak barne.

2. Erabakia argitaratzean kontuan hartu beharko da sarbide-zaindariak eta hirugarrenek interes legitimoa dutela beren informazio konfidentziala babesteko.

45. artikulua

Justizia Auzitegiaren kontrola

EBFTren 261. artikulua arabera, Justizia Auzitegiak erabateko jurisdikzio-eskumena dauka Batzordeak zehapen-isunak edo hertsapen-isunak jartzeko hartzen dituen erabakiak berrikusteko. Justizia Auzitegiak ezarritako zehapen-isunak edo hertsapen-isunak deuseztatu, txikitu edo handitu ditzake.

46. artikulua

Garapen-arauak



1. La Comisión podrá adoptar actos de ejecución por los que se establezcan disposiciones pormenorizadas para la aplicación de lo que sigue:

- a) la forma, el contenido y otros detalles de las notificaciones y la información presentada con arreglo al artículo 3;
- b) la forma, el contenido y otros detalles de las medidas técnicas que los guardianes de acceso deben aplicar para garantizar el cumplimiento de los artículos 5, 6 o 7;
- c) los aspectos operativos y técnicos con vistas a poner en práctica la interoperabilidad de los servicios de comunicaciones interpersonales independientes de la numeración con arreglo al artículo 7;
- d) la forma, el contenido y otros detalles de la petición motivada con arreglo al artículo 8, apartado 3;
- e) la forma, el contenido y otros detalles de las peticiones motivadas con arreglo a los artículos 9 y 10;
- f) la forma, el contenido y otros detalles de los informes reglamentarios presentados con arreglo al artículo 11;
- g) la metodología y el procedimiento para la descripción auditada de las técnicas utilizadas para la elaboración de perfiles de los consumidores que contempla el artículo 15, apartado 1. Cuando la Comisión elabore a estos efectos un proyecto de acto de ejecución, consultará al Supervisor Europeo de Protección de Datos y podrá consultar al Comité Europeo de Protección de Datos, a la sociedad civil y a otros expertos pertinentes;

1. Batzordeak betearazpen-egintzak eman ahal izango ditu honako hauek aplikatzeko xedapen xehatuak ezartzeko:

- a) 3. artikulua arabera aurkeztu diren jakinarazpenen eta komunikazioen forma, edukia eta beste xehetasun batzuk;
- b) sarbide-zaindariak 5., 6. eta 7. artikulua betetzeko aplikatu behar dituzten neurri teknikoaren forma, edukia eta beste xehetasun batzuk;
- c) 7. artikulua arabera zenbakekin zerikusirik ez duten pertsonen arteko komunikazio-zerbitzuen arteko elkarreragingarritasuna praktikan jartzeko xedapen operatiboak eta teknikoak;
- d) 8.3 artikulua arabera eskaera arrazoituaren forma, edukia eta beste xehetasun batzuk;
- e) 9. eta 10. artikuluen arabera eskaera arrazoituaren forma, edukia eta beste xehetasun batzuk;
- f) 11. artikulua arabera aurkeztu diren arauzko txostenen forma, edukia eta beste xehetasun batzuk;
- g) 15.1 artikulua arabera kontsumitzaileen profilak egiteko erabiltzen diren tekniken deskribapen ikuskatua egiteko metodoa eta prozedura. Batzordeak horretarako betearazpen-egintza baten proiektua egiten duenean, kontsulta egingo dio Datuak Babesteko Europako Ikuskatzaileari eta kontsulta egin ahal izango die Datuak Babesteko Europako Komiteari, gizarte zibilari eta beste aditu batzuei;



h) la forma, el contenido y otros detalles de las notificaciones y la información presentada con arreglo a los artículos 14 y 15;

i) las disposiciones prácticas de los procedimientos relativos a las investigaciones de mercado con arreglo a los artículos 17, 18 y 19 y los procedimientos con arreglo a los artículos 24, 25 y 29;

j) los aspectos prácticos del ejercicio del derecho a ser oído previsto en el artículo 34;

k) los aspectos prácticos de las condiciones de revelación previstas en el artículo 34;

l) los aspectos prácticos de la cooperación y la coordinación entre la Comisión y las autoridades nacionales a que se refieren los artículos 37 y 38, y

m) los aspectos prácticos del cálculo y la ampliación de los plazos.

2. Los actos de ejecución a que se refiere el apartado 1, letras a) a k) y letra m), del presente artículo, se adoptarán de conformidad con el procedimiento consultivo a que se refiere el artículo 50, apartado 2.

El acto de ejecución a que se refiere el apartado 1, letra l), del presente artículo, se adoptará de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 50, apartado 3.

3. Antes de adoptar cualquier acto de ejecución en virtud del apartado 1, la Comisión publicará un proyecto de acto e invitará a todas las partes interesadas a presentar sus observaciones en un plazo que no podrá ser inferior a un mes.

h) 14. eta 15. artikuluen arabera aurkeztu diren jakinarazpenen eta komunikazioen forma, edukia eta beste xehetasun batzuk;

i) 17., 18. eta 19. artikuluen arabera egiten diren merkatu-ikerketen prozedurei buruzko xedapen praktikoak, eta 24., 25. eta 29. artikuluen arabeko prozedurei buruzkoak;

j) 34. artikuluan ezartzen den entzuna izateko eskubidea gauzatzeko xedapen praktikoak;

k) 34. artikuluen arabera informazioa emateko xedapen praktikoak;

l) 37. eta 38. artikuluetan aipatzen diren Batzordearen eta agintaritza nazionalen arteko lankidetzari eta koordinazioari buruzko xedapen praktikoak, eta

m) epealdiak kalkulatzeari eta luzatzeari buruzko xedapen praktikoak.

2. Artikulu honen 1. apartatuaren a) letratik k) bitarteko letretan eta m) letran aipatzen diren betearazpen-egintzak 50.2 artikuluan azaltzen den kontsulta-prozedurari jarraikiz hartuko dira.

Artikulu honen 1. apartatuaren l) letran aipatzen den betearazpen-egintza 50.3 artikuluan aipatzen den azterketa-prozedurari jarraikiz hartuko da.

3. 1. apartatuaren arabeko betearazpen-egintza bat eman aurretik, Batzordeak egintza-proiektua argitaratuko du, eta alderdi interesdun guztiei eskatuko die aurkeztu ditzatela oharrak epealdi jakin baten barruan (hilabete gutxienez).



Artículo 47

Directrices

La Comisión podrá adoptar directrices sobre cualquiera de los aspectos del presente Reglamento con el fin de facilitar su aplicación y ejecución efectivas.

Artículo 48

Normalización

Cuando sea conveniente y necesario, la Comisión podrá ordenar a las organizaciones europeas de normalización que faciliten el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente Reglamento mediante el desarrollo de las normas adecuadas.

Artículo 49

Ejercicio de la delegación

1. Se otorgan a la Comisión los poderes para adoptar actos delegados en las condiciones establecidas en el presente artículo.
2. Los poderes para adoptar actos delegados mencionados en el artículo 3, apartados 6 y 7, y en el artículo 12, apartados 1, 3 y 4, se otorgan a la Comisión por un período de cinco años a partir del 1 de noviembre de 2022. La Comisión elaborará un informe sobre la delegación de poderes a más tardar nueve meses antes de que finalice el período de cinco años. La delegación de poderes se prorrogará tácitamente por períodos de idéntica duración, excepto si el Parlamento Europeo o el Consejo se oponen a dicha prórroga a más tardar tres meses antes del final de cada período.
3. La delegación de poderes mencionada en el artículo 3, apartados 6 y 7, y en el artículo

47. artikulua

Gidalerroak

Batzordeak erregelamendu honi buruzko gidalerroak eman ahal izango ditu, ondo aplikatzen eta betetzen laguntzeko.

48. artikulua

Normalizazioa

Beharrezkoa eta bidezkoa denean, Batzordeak normalizaziorako Europako erakundeei agindu ahal izango die lagundu dezatela erregelamendu honetan ezartzen diren betebeharrak betetzen arau egokien bidez.

49. artikulua

Eskuordetza erabiltzea

1. Batzordeari ahalmena ematen zaio egintza eskuordetuak emateko artikulua honetan arautzen denari jarraikiz.
2. 3. artikulua 6. eta 7. apartatuetan eta 12. artikulua 1., 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren egintza eskuordetuak emateko ahalordeak bost urterako ematen zaizkio Batzordeari, 2022ko azaroaren 1etik hasita. Bost urteko aldia amaitu baino bederatzi hilabete lehenago, beranduenez, Batzordeak txosten bat egingo du ahalak eskuordetzeari buruz. Ahalen eskuordetzea isilbidez luzatuko da iraupen bereko aldietan, salbu eta Europako Parlamentuak edo Kontseiluak luzapen horren aurka egiten badute, aldi bakoitza amaitu baino hiru hilabete lehenago, beranduenez.
3. 3. artikulua 6. eta 7. apartatuetan eta 12. artikulua 1., 3. eta 4. apartatuetan



12, apartados 1, 3 y 4, podrá ser revocada en cualquier momento por el Parlamento Europeo o por el Consejo. La decisión de revocación pondrá término a la delegación de los poderes que en ella se especifiquen. La decisión surtirá efecto el día siguiente al de su publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea o en una fecha posterior indicada en ella. No afectará a la validez de los actos delegados que ya estén en vigor.

4. Antes de la adopción de un acto delegado, la Comisión consultará a los expertos designados por cada Estado miembro de conformidad con los principios establecidos en el Acuerdo interinstitucional de 13 de abril de 2016 sobre la mejora de la legislación.

5. Tan pronto como la Comisión adopte un acto delegado lo notificará simultáneamente al Parlamento Europeo y al Consejo.

6. Los actos delegados adoptados en virtud del artículo 3, apartados 6 y 7, y el artículo 12, apartados 1, 3 y 4 entrarán en vigor únicamente si, en un plazo de dos meses a partir de su notificación al Parlamento Europeo y al Consejo, ninguna de estas instituciones formula objeciones o si, antes del vencimiento de dicho plazo, ambas informan a la Comisión de que no las formularán. El plazo se prorrogará dos meses a iniciativa del Parlamento Europeo o del Consejo.

Artículo 50

Procedimiento de comité

1. La Comisión estará asistida por un comité («Comité Consultivo sobre Mercados

aipatzen diren ahalen eskuordetzea noiznahi errebokatu ahal izango du Europako Parlamentuak edo Kontseiluak. Errebokatze-erabakiak bukaera emango dio bertan zehazten diren ahalak eskuordetzeari. Erabakiak Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak, edo bertan adierazten den geroagoko egun batean. Ez du eraginik izango ordurako indarrean dauden eskuordetutako egintzen balioan.

4. Egintza eskuordetu bat onartu aurretik, Batzordeak kontsulta egingo die Batasuneko estatu guztiek izendatutako adituei, legeria hobetzeari buruzko 2016ko apirilaren 13ko erakundearteko akordioan ezarritako printzipioen arabera.

5. Batzordeak egintza eskuordetu bat eman bezain laster, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraziko die horren berri, biei batera.

6. 3. artikulua 6. eta 7. apartatuetan eta 12. artikulua 1., 3. eta 4. apartatuetan ezartzen denaren arabera ematen diren egintza eskuordetuak bi kasu hauetan bakarrik sartuko dira indarrean: Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinarazi ondoko bi hileko aldian ez bata ez besteak eragozpenik aurkezten ez badu; aldi horren barruan biek jakinarazten badiote Batzordeari ez dutela eragozpenik aurkeztuko. Epealdi hori hiru hilabete luzatuko da Europako Parlamentuak edo Kontseiluak eskatuz gero.

50. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak komite baten laguntza edukiko du («Merkatu Digitalen Aholku Komitea»).



Digitales»). Dicho comité será un comité en el sentido del Reglamento (UE) n.o 182/2011.

2. En los casos en que se haga referencia al presente apartado, se aplicará el artículo 4 del Reglamento (UE) n.o 182/2011.

Cuando el dictamen del comité deba obtenerse mediante procedimiento escrito, se pondrá fin a dicho procedimiento sin resultado si, en el plazo para la emisión del dictamen, el presidente del comité así lo decide o si una mayoría simple de los miembros del comité así lo solicita.

3. En los casos en que se haga referencia al presente apartado, se aplicará el artículo 5 del Reglamento (UE) n.o 182/2011.

4. La Comisión comunicará el dictamen del comité al destinatario de una decisión individual, junto con dicha decisión. Hará público el dictamen junto con la decisión individual, teniendo en cuenta el interés legítimo en la protección del secreto profesional.

Artículo 51

Modificación de la Directiva (UE) 2019/1937

En la parte I, sección J, del anexo de la Directiva (UE) 2019/1937 se añade el inciso siguiente:

«iv) Reglamento (UE) 2022/1925 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de septiembre de 2022, sobre mercados disputables y equitativos en el sector digital y por el que se modifican las Directivas (UE) 2019/1937 y (UE) 2020/1828 (Reglamento de Mercados Digitales) (DO L 265 de 21.9.2022, p. 1).».

Komite horren adiera (EB) 182/2011 Erregelamenduak ezartzen duena izango da.

2. Apartatu hau aipatzen denean, (EB) 182/2011 Erregelamenduaren 4. artikulua aplikatuko da.

Komitearen irizpena idatzizko prozeduraren bidez lortu behar denean, prozedura horri emaitzarik gabe emango zaio amaiera kasu hauetan: irizpena emateko epealdiaren barruan Komitearen lehendakariak hori erabakitzen badu; Komiteko kideen gehiengo soilak eskatzen badu.

3. Apartatu hau aipatzen denean, (EB) 182/2011 Erregelamenduaren 5. artikulua aplikatuko da.

4. Batzordeak Komitearen irizpena jakinaraziko dio erabaki indibidual baten hartzaileari, erabaki horrekin batera. Irizpena eta banakako erabakia publiko egingo ditu, sekretu profesionala babesteko interes legitimoa kontuan hartuta.

51. artikulua

(EB) 2019/1937 Zuzentaraua aldatzea

(EB) 2019/1937 Zuzentaruaren eranskinaren J atalaren I. atalean tarteki hau gehitzen da:

«iv) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2022/1925 Erregelamendua, 2022ko irailaren 14koa, zerbitzu digitalen sektoreko lehia-merkatu ekitatiboari buruzkoa eta (EB) 2019/1937 Zuzentaraua eta (EB) 2020/1828 Zuzentaraua aldatzen dituen (Merkatu Digitalen Erregelamendua) (L 265 EBAO, 2022-09-21ekoa, 1. or.).».



Artículo 52

Modificación de la Directiva (UE) 2020/1828

En el anexo I de la Directiva (UE) 2020/1828 se añade el punto siguiente:

«67) Reglamento (UE) 2022/1925 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de septiembre de 2022, sobre mercados disputables y equitativos en el sector digital y por el que se modifican las Directivas (UE) 2019/1937 y (UE) 2020/1828 (Reglamento de Mercados Digitales) (DO L 265 de 21.9.2022, p. 1).».

Artículo 53

Revisión

1. A más tardar el 3 de mayo de 2026, y posteriormente cada tres años, la Comisión evaluará el presente Reglamento e informará de ello al Parlamento Europeo, al Consejo y al Comité Económico y Social Europeo.

2. En las evaluaciones se valorará tanto si se han logrado los objetivos del presente Reglamento, consistentes en garantizar unos mercados disputables y equitativos, como las repercusiones del presente Reglamento para los usuarios profesionales, especialmente las pymes, y los usuarios finales. Además, la Comisión evaluará si el ámbito de aplicación del artículo 7 puede ampliarse a los servicios de redes sociales en línea.

3. Las evaluaciones establecerán si es necesario modificar las normas, en particular en relación con la lista de servicios básicos de plataforma establecida en el artículo 2, punto

52. artikulua

(EB) 2020/1828 Zuzentaraua aldatzea

(EB) 2020/1828 Zuzentarauaren I. eranskinean puntu hau gehitzen da:

«67) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2022/1925 Erregelamendua, 2022ko irailaren 14koa, zerbitzu digitalen sektoreko lehia-merkatu ekitatiboei buruzkoa eta (EB) 2019/1937 Zuzentaraua eta (EB) 2020/1828 Zuzentaraua aldatzen dituen (Merkatu Digitalen Erregelamendua) (L 265 EBAO, 2022-09-21ekoa, 1. or.).».

53. artikulua

Berrikustea

1. 2026ko maiatzaren 3an beranduenez, Batzordeak erregelamendu hau aztertuko du eta txostena bidaliko du Europako Parlamentura, Europako Kontseilura eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiterra, eta harrezkero gauza bera egingo du hiru urtetik behin.

2. Ebaluazioetan kontuan hartuko da, alde batetik, erregelamendu honen helburuak lortu diren, hau da, merkatuan bidezko lehia bermatu den, eta beste alde batetik, erregelamendu honek erabiltzaile profesionalentzat –bereziki ETEentzat– eta azken erabiltzaileentzat dituen ondorioak. Halaber, Batzordeak aztertuko du ea 7. artikuluaaren aplikazio-eremua lineako gizarte-sareen zerbitzuetara zabaltzea daitekeen.

3. Ebaluazioen bidez ebartziko da ea aldatu behar diren arauak, batez ere 2.2 artikuluko oinarriko plataforma-zerbitzuen zerrendari dagokionez, eta halaber aldatu behar diren



2, o las obligaciones establecidas en los artículos 5, 6 y 7 y su ejecución, a fin de garantizar que los mercados digitales de toda la Unión sean disputables y equitativos. Tras las evaluaciones, la Comisión adoptará las medidas adecuadas, que podrán incluir propuestas legislativas.

4. Las autoridades competentes de los Estados miembros proporcionarán a la Comisión toda la información pertinente de la que dispongan y que esta pueda necesitar para elaborar el informe a que se refiere el apartado 1.

Artículo 54

Entrada en vigor y aplicación

El presente Reglamento entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea.

Se aplicará a partir del 2 de mayo de 2023.

No obstante, el artículo 3, apartados 6 y 7, y los artículos 40, 46, 47, 48, 49 y 50 serán aplicables a partir del 1 de noviembre de 2022 y el artículo 42 y el artículo 43 serán aplicables a partir del 25 de junio de 2023.

Sin embargo, si la fecha del 25 de junio de 2023 es anterior a la fecha de aplicación a que se refiere el párrafo segundo del presente artículo, la aplicación del artículo 42 y del artículo 43 se aplazará hasta la fecha de aplicación a que se refiere el párrafo segundo del presente artículo.

El presente Reglamento será obligatorio en todos sus elementos y directamente aplicable en cada Estado miembro.

5., 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren betebeharrak eta haien betearazpena, Batasun osoko merkatu digitaletan lehia eta bidezketasuna bermatzeko. Ebaluazioak egin ondoren, Batzordeak neurri egokiak hartuko ditu, eta horietako batzuk legegintzako proposamenak izan daitezke.

4. Batasuneko estatuetako agintaritza eskudunek 1. apartatuan aipatzen den txostena egiteko behar duen informazio guztia emango diote Batzordeari, edukiz gero.

